**2021EKO ABENDUAREN 9AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 9 DE DICIEMBRE DE 2021**

| | |
|---|---|
| **LEKUA**: Beasaingo Udaletxea. | **LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain |
| **ARETOA**: Batzar Aretoa. | **LOCAL**: Salón de Plenos |
| **EGUNA**: Bederatzia | **DIA**: Nueve |
| **HILABETEA**: Abendua. | **MES:** Diciembre. |
| **URTEA**: Bi mila eta hogeita bat | **AÑO**: Dos mil veintiuno |
| **HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko zazpiak | **HORA DE COMIENZO**: Diecinueve horas. |
| **BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa. | **CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria. |
| **DEIALDIA**: Lehena. | **CONVOCATORIA**: Primera. |
| **OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Hamazazpi (17) | **NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17) |
| **UDALBURUA / PRESIDENTE**:<br>LEIRE ARTOLA UGALDE<br><br>**BILDUAK / REUNIDOS**:<br><br>EAJ-PNV<br><br>- LEIRE ARTOLA UGALDE<br>- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO<br>- MARIA ELENA RUIZ ZABALA<br>- EDORTA DIAZ DEL RIO<br>- JON OLANO ARRESE<br>- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA<br>- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA<br>- AINARA AYESTARAN ALDASORO<br>- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL<br><br>Beasaingo EH Bildu<br><br>- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL<br>- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR<br>- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ<br>- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE<br>- AITOR URDANGARIN IRASTORZA<br><br>Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak<br><br>- EVA ALVAREZ ATANES<br>- ANGEL REDONDO FERNANDEZ | |

| | |
|---|---|
| **ETORRI GABEA / AUSENTE**:<br>MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ (EAJ-PNV)<br><br>**IDAZKARIA / SECRETARIA:**<br>Itziar Aroztegui Apaolaza | |
| Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak.<br><br>Bapateko itzulpen lanetan Itziar Mendizabal andrea ibili da Traductores e interpretes S.A.ren enpresakoa.<br><br>Gai zerrendarekin hasi baino lehen Alkateak esan du eskaera eta galderen atalaren aurretik premiazko puntua sartzea proposatuko duela, hain zuen ere, musika eskola finantzatzen laguntzen duen Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatzea. | En la reunión también ha participado la interventora Lurdes Alegría Lasa.<br><br>Las labores de traducción simultanea las ha realizado Itziar Mendizabal de la empresa Traductores e Intérpretes S.A.<br><br>Antes de comenzar con el orden del día, la Sra. Alcaldesa ha dicho que antes del apartado de ruegos y preguntas propondrá se incluya un punto de urgencia, que es la firma de un convenio con el Gobierno Vasco que ayuda a financiar la escuela de música. |
| **1.- AURREKO AKTA**. 2021-10-28.<br><br>Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako. | **1.- ACTA ANTERIOR**. 28-10-2021.<br><br>Tras dar a conocer el acta se ha aprobado por unanimidad. |
| **2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**<br><br>a.- KREDITU ALDAKETA, 9. KREDITU TRANSFERENTZIEN ESPEDIENTEA. 2021TRFR0009<br><br>Antolakuntza batzordeak bere gain hartutako Alkatearen proposamenaren berri eman da, hau da:<br><br>***"KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA***<br><br>***Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)*** | **2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE ANTOLAKUNTZA**:<br><br>a.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS. EXPEDIENTE N. 9 DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS.<br><br>Se da cuenta de la propuesta de Alcaldía asumida por la comisión de Organización:<br><br>***"PROPUESTA DE TRANSFERENCIAS DE CRÉDITO***<br>***Partidas de gastos que incluyen créditos transferidos (bajas)*** |

| ***Partida*** | ***Izena*** | ***Hasierako kreditua*** | ***Gutxipena*** | ***Amaierako kreditua*** |
|---|---|---|---|---|
| ***0110.227.920.00.07*** | ***Lan teknikoak:dirulaguntz. oinar*** | ***10.000,00***<br>***20.000,00*** | ***10.000,00***<br>***20.000,00*** | ***0,00***<br>***0,00*** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ***0110.227.920.00.99***<br><br>***0110.227.932.00.09*** | ***Kanpo enp.:Aholk. Juridiko integ***<br><br>***Zergabilketa egikaritzailea*** | ***74.855,00*** | ***10.000,00*** | ***64.855,00*** |
| ***GUZTIRA ...*** | | ***104.855,00*** | ***40.000,00*** | ***64.855,00*** |

| ***Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)*** | ***Partidas de gastos que agrupan los créditos incrementados (altas)*** |
|---|---|

| *Partida* | *Izena* | *Hasierako kreditua* | *Gehikuntza* | *Amaierako kreditua* |
|---|---|---|---|---|
| *0350.622.459.00.01*<br>*0110.225.920.00.02* | *Garajes y locales comerciales B. Lantzen*<br>*Tributos liquidación Beasain Lantzen* | *0,00*<br>*0,00* | *30.669,44*<br>*9.330,56* | *30.669,44*<br>*9.330,56* |
| *GUZTIRA ...* | | *0,00* | *40.000,00* | *40.000,00* |

| | |
|---|---|
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.<br><br>Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da: | En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.<br><br>En consecuencia, se ha adoptado el siguiente acuerdo por unanimidad: |
| "1.- 9 Kreditu Transferentzien bidez 40.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.<br><br>2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako aldaketa Kontuhartzailetzak kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea." | "1º.- Aprobar la modificación de créditos n. 9 en la modalidad de transferencia de créditos, financiada tal como se detalla en la documentación que se adjunta, por importe de 40.000,00 euros.<br><br>2º.- Dado que este acto es firme sin más trámite, procede que la modificación aprobada sea reflejada contablemente por Intervención con efectos inmediatos.<br>2." |
| b.- KREDITU TRANSFERENTZIA. 14. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA. 2021CRAD0014 | b.- TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS. EXPEDIENTE Nº 14 DE CRÉDITOS ADICIONALES. |

| | |
|---|---|
| Antolakuntza batzordeak bere gain hartutako Alkatearen proposamenaren berri eman da, hau da: | Se da cuenta de la propuesta de Alcaldía asumida por La Comisión de Organización: |
| *“GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA*<br><br>*Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.* | *PROPUESTA DE REALIZACION DE GASTOS Y LA CORRESPONDIENTE MODIFICACION DE CREDITOS*<br><br>*Ante la urgente necesidad de llevar a cabo los gastos que se relacionan y ante la insuficiencia o inexistencia de créditos presupuestarios para su financiación, se formula la siguiente propuesta ajustada a la estructura presupuestaria vigente.* |

| ***Aurrekontuko kontu saila/*** *Partida Presupuestaria* | ***Kontzeptua*** */ Concepto* | ***Kredituak*** */ Créditos* | | |
|---|---|---|---|---|
| | | ***Egungoak*** */ Actuales* | ***Aldaketak /*** *Modificaciones* | ***Behin betikoak /*** *Definitivos* |
| *0350.623.340.00.02* | *Plaka fotoboltaikoak Kiroldegian* | *0,00* | *370.000,00* | *370.000,00* |
| ***GUZTIRA*** */ TOTAL* | | *0,00* | *370.000,00* | *370.000,00* |

| | |
|---|---|
| *KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA* | *PROPUESTA DE FINANCIACIÓN DE CRÉDITOS ADICIONALES* |

| *Sarreren kontzeptuak* | *Baliabidearen kontzeptua* | *Sarrera handiagoak* |
|---|---|---|
| *870.01* | *Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina* | *370.000,00* |
| *GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA* | | *370.000,00* |

| | |
|---|---|
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldearen bozeramaileak galdetuta Alkateak esan du, aurreko urteko aurrekontuan proiektua egiteko kontusaila jaso zela. Proiektua GOIENERek egin du. Orain aurreikusten dena da, proiektua gauzatzeko kreditua.<br><br>Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) jaunak gogorarazi du beste batzuetan | En el turno de intervenciones. preguntada por la portavoz del grupo municipal Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, la Sra. Alcaldesa ha señalado que en el presupuesto del año anterior se recogió la partida para la elaboración del proyecto. El proyecto ha sido elaborado por GOIENER. Lo que se prevé ahora, es un crédito para ejecutar el proyecto.<br><br>D. Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) recuerda lo dicho en otras ocasiones, es decir, que los edificios municipales deben ser |

| | |
|---|---|
| esandakoa, hau da, udal eraikinak autosufizienteak izan behar dutela.<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV) esan du klimaren aldaketari aurrera egiteko aurreikusita dagoela udal eraikinen azterketa egitea, Arangoiti Fundazioa barne.<br><br>Horren ondorioz bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da: | autosuficientes.<br><br>La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV) comenta que para hacer frente al cambio climático está previsto realizar un estudio de los edificios municipales, incluida la Fundación Arangoiti.<br><br>Sometida a votación la misma, se adopta por unanimidad el siguiente acuerdo: |
| "1.- 14. Kreditu gehikuntzen bidez 370.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena: | "1.- Aprobar inicialmente la modificación de créditos n. 14 en la modalidad de créditos adicionales, financiada tal como se detalla en la documentación que se adjunta, por importe de 370.000,00 euros y cuyo resumen por capítulos es el siguiente: |

GASTUEN GEHIKUNTZA

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| 6 | Inbertsio errealak / Inversiones reales | 370.000,00 |
| GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO | | 370.000,00 |

SARRERAK

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak / Activos financieros | 370.000,00 |
| FINANTZAZIOA/ FINANCIACIÓN | | 370.000,00 |

| | |
|---|---|
| 2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da." | 2.- Someter a exposición pública por espacio de 15 días al efecto de presentar alegaciones, entendiéndose definitivamente aprobada si no se presentara reclamación alguna." |
| c.- <u>ZORRETAN SUBROGATZEA. UDALAREN SUBROGAZIOA ANTZIZAR KIROLDEGIAREN KUDEAKETA INTEGRALERAKO SINATUTAKO</u> | *c.- <u>SUBROGACIÓN DE DEUDAS. SUBROGACIÓN DEL AYUNTAMIENTO EN LAS DEUDAS DERIVADAS DE LOS CONTRATOS SUSCRITOS PARA LA</u>* |

| | |
|---|---|
| KONTRATUEN ONDORIOZKO ZORRETAN. 2021IDBO0031<br><br>Antolakuntza batzordeak bere gain hartutako Likidadorearen proposamenaren berri eman da, hau da:<br>*"AURREKARIAK*<br><br>*1.- 2002-01-29. Osorik tokiko kapitala duen BEASAIN LANTZEN, SA sozietatea eratzeko eskritura,*<br><br>*Helburu soziala: Babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio tasatuko etxebizitzak sustatzea eta eraikitzea, eta lurzoru industriala sustatzea eta kudeatzea, Beasainen eta bertako biztanleen mesedetan.*<br><br>*2.- 2004-05-27. Batzar Orokorraren erabakia Sozietatearen helburu soziala aldatzeko.:*<br><br>*Helburu soziala: Bizitegitarako, industriarako eta mota guztietako zerbitzuetarako eraikinak jartzeko lurzorua sustatzea, antolatzea, urbanizatzea, erostea eta saltzea. Era berean, babes ofizialeko etxebizitzak sustatu, proiektatu, eraiki, erosi, saldu edo beste modu batera laga, eta sozietateak tasatutako prezioan kudeatu, industria-eraikinak, erabilera publiko eta pribatukoak izan daitezkeen komunitate-zerbitzu eta -zuzkidurak, Beasainen eta bertako biztanleen mesedetan.*<br><br>*3.- 2004-09-30. Kirolaren Udal Institutuko Zuzendaritza Batzordeak erabaki zuen Beasaingo kirol-gunea birmoldatu eta handitzeko obrak kontratatzeko eta kirol-instalazioak kudeatzeko ahalmena Udalari helaraztea.*<br><br>*4.- 2004-10-13. Osoko bilkuraren erabakia, honako hau adosten duena: sozietateari agintzea udalaren kirol-gunea sustatzeko eta etorkizuneko instalazioak kudeatzeko, eta sozietateari ematea, kapital-zabalkuntza gisa, kirol-instalazioen eta horiek dauden finken erabilera-lagapena.*<br><br>*5.- 2006-06-29. Osoko bilkuraren erabakia, 2004-10-13ko bilkuran hartutakoa egokitzeari buruzkoa. 5255 eta 7142 finken gaineko azalera-eskubide emakidaduna eratzen da, eta horien erregistro-elkarketa egiten da.* | *GESTIÓN INTEGRAL DEL POLIDEPORTIVO ANTZIZAR.*<br><br>*Se da cuenta de la propuesta del Liquidador asumida por la Comisión de Organización:*<br><br>*"ANTECEDENTES*<br><br>*1.- 29-01-2002. Escritura de constitución de la Sociedad de capital íntegramente local, BEASAIN LANTZEN, SA.*<br><br>*Objeto social: promover y construir viviendas de protección oficial y de viviendas a un precio tasado, así como promover y gestionar suelo industrial, en beneficio de Beasain y sus habitantes.*<br><br>*2.- 27-05-2004. La Junta General de la Sociedad acuerda modificar el objeto social.*<br><br>*Objeto social: promover, ordenar, urbanizar, comprar y vender suelo destinado a la ubicación de edificios residenciales, industriales y para toda clase de servicios. Así como promover, proyectar, construir, comprar, vender o ceder en otras formas, y gestionar viviendas de protección oficial y a un precio tasado por la Sociedad, edificios industriales, servicios y dotaciones comunitarias que puedan ser de utilidad pública y privada, en beneficio de Beasain y de sus habitantes.*<br><br>*3.- 30-09-2004. La Junta Rectora del Instituto municipal del Deporte acordó trasladar al Ayuntamiento la potestad para contratar las obras de remodelación y ampliación del complejo deportivo de Beasain, así como la gestión de las instalaciones deportivas.*<br><br>*4.- 13-10-2004. Acuerdo plenario por el que se acuerda: encomendar a la Sociedad la promoción del complejo deportivo municipal y la gestión de las futuras instalaciones, así como aportar a la Sociedad como ampliación de capital la cesión de uso de las instalaciones deportivas y de las fincas (5255 y 7142), en donde se localizan.*<br><br>*5.- 29-06-2006. Acuerdo plenario de adecuación del adoptado en la sesión del 13-10-2004. Se constituye un derecho concesionario de superficie sobre las fincas 5255 y 7142, y se realiza la agrupación registral de las mismas.* |

| | |
|---|---|
| *6.- 2006-06-30. Antzizar kiroldegiaren kudeaketa integralerako Sozietateak eta Beasain Aldi Baterako Enpresa Elkarteak eta sinatutako zerbitzu-emakidaren kontratua, hamabost urteko egikaritze epearekin eta luzatzeko beste bost urteko aukerarekin. Ondoren, kontratuaren hiru berritze subjektibo egin dira, eta beste hiru, edukiari dagokionez.*<br><br>*Kontratua, 2021-06-30ean iraungi zen, luzapen aukera gauzatu ez zelako.*<br><br>*7.- 2021-07-01. Zerbitzu kontratuaren sinatze data, Beasain Lantzen, SAU en Liquidación eta INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATROen artean, urtebeterako.*<br><br>*8.- Sozietatea desegiteko Batzar Orokorrak 2015-12-22an hartutako erabakiaren jarraipen gisa, sozietatea behin betiko iraungitzea eta likidatzea proposatzen da, baina horretarako sozietatearen zorrak kitatu behar dira.*<br><br>*Hala ere, gertatzen da gaur egun:*<br><br>*• Ezin direla zehatz-mehatz zehaztu Likidazioan dagoen Beasain Lantzen SAU enpresak 2006-06-30eko kontratutik eratorritako dituen betebeharrak, pandemiak eragindako ondorioztatutako berroreka ekonomikoari dagokionez.*<br><br>*• 2021-07-01eko kontratutik eratorritako gastuen zenbatespena, 2021eko azaroko faktura jasotzearen baitan 25.868,51 €koa (BEZa barne), izango litzateke.*<br><br>*Horren ondorioz, Idazkariaren eta Kontuhartzailearen txostenak kontuan izanda, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten zaio:*<br><br>*<u>Lehenengoa</u>. Likidazioan dagoen Beasain Lantzen SAU enpresaren zordun gisa Beasaingo Udala subrogatzea onartzea, zehazki kontratu hauetatik ondorioztatutako ordaindu gabe dauden betebehar ekonomikoetan:*<br><br>*a.- 2006-06-30eko zerbitzuak emateko kontratua eta ondorengo aldaketak.* | *6.- 30-06-2006. Contrato de concesión de servicios firmado entre la Sociedad y la UTE Beasain Unión Temporal de Empresas para la gestión integral del polideportivo Antzizar, con plazo de ejecución de quince años y posibilidad de prórroga de cinco. Con posterioridad se han efectuado tres novaciones subjetivas del contrato y otras tres en cuanto a su contenido.*<br><br>*El contrato venció el 30-06-2021, al no haberse hecho uso de la prórroga.*<br><br>*7.- 1-07-2021. Firma de contrato de servicios entre Beasain Lantzen, SAU en Liquidación e INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, por período de un año.*<br><br>*8.- Como continuación del acuerdo de disolución de la Sociedad adoptado por la Junta General el 22-12-2015, se propone extinguir y liquidar definitivamente la Sociedad, pero para ello hace falta saldar las deudas de la misma.*<br><br>*Ocurre, sin embargo, que a día de hoy:*<br><br>*• No se pueden precisar con exactitud las obligaciones de Beasain Lantzen SAU en Liquidación, derivadas del contrato de 30-06-2006, en lo referente a su reequilibrio económico por las consecuencias generadas por la pandemia.*<br><br>*• La estimación de los gastos derivados del contrato de 1-07-2021, a falta de presentar la factura del mes de noviembre de 2.021, aproximadamente es de 25.868,51 €, IVA incluido.*<br><br>*En consecuencia, teniendo en cuenta los informes de la Secretaria e Interventora, se somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:*<br><br>*<u>Primero</u>. Aprobar la subrogación del Ayuntamiento de Beasain en la posición de deudor de Beasain Lantzen SAU en Liquidación y en concreto, en las obligaciones económicas pendientes de pago derivadas de los contratos de:*<br><br>*a.- Contrato de concesión de servicios de 30-06-2006 y posteriores modificaciones.*<br><br>*b.- Contrato de servicios de 1-07-2021* |

| | |
|---|---|
| *b.- 2021eko uztailaren 1eko zerbitzu-kontratua*<br><br>Bigarrena. *Ondoren eta osoko bilkuran bertan Beasain Lantzen behin betiko azkentzea eta likidazioa onartzearen baitan hartzen da erabakia.”* | Segundo. *El referido acuerdo se adopta con la condición de que a continuación y en la misma sesión plenaria se apruebe la extinción y liquidación definitiva de Beasain Lantzen.”* |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak azaldu dituzte:<br><br>Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) jaunak: “Uste dugu ez gaudela baldintza egokienetan puntu hau babesteko. Bat egin dezakegu planteatzen denarekin baina forma aldetik ez da oso egokia izan, jakinda pleno hau astebete lehenago egin behar zela. Horrezaz gain MAS QUATROrekin hainbat gorabehera izan dira. Oraindik hor daude estali gabeko zorrak. Baina, gure ustez Kiroldegiaren kudeaketaren inguruan lanketa bat egitea geratzen da eta horretarako deia egiten dugu, beasaindarren mesederako. Ez dugu uste baldintza egokienak ematen direnik baiezkoa emateko, batez ere forma aldetik eta inor kritikatu gabe.” | En el turno de intervenciones, los asistentes exponen las siguientes opiniones respecto a la propuesta:<br><br>Sr. Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “Creemos que no estamos en condiciones para apoyar este punto. Podemos coincidir con lo que se plantea, pero no ha sido muy adecuado en cuanto a la forma, sabiendo que este pleno se tenía que haber celebrado la semana pasada. Además se han producido diversas incidencias con MAS QUATRO. Todavía están ahí las deudas descubiertas. Pero creemos que falta un trabajo en torno a la gestión del Polideportivo y hacemos un llamamiento para ello, en beneficio de los beasaindarras. No creemos que se den las condiciones más adecuadas para dar el sí, sobre todo en cuanto a la forma y sin criticar a nadie. |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zuek gu bezala dakizue teknikariek esandakoa, azkeneko aldaketak izan dira, notario, auditore eta kontabilitate aldetik sortu direnak. Proposamenean esaten da zergatik atzeratu zen desegite hau baina orain gu aurrera goaz. Forma aldetik ere bat egin dezaket, azkeneko aldaketak medio. Balantzeak eta horrelakoak guri ere ulertzea kostatzen zaigun zerbait da eta teknikarien eskuetan utzitakoa. Saiatu gara udalbatza baino lehen azaltzen. Erabaki hau atzeratzea ere ez zaigu iruditzen, idazkari eta kontuhartzailea azken hilabete hauetan horretan aritu bait dira: ondasunak baloratzen, Ogasunari kontsultak egiten etab.” | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “Ustedes saben como nosotros lo que han dicho los técnicos, las últimas modificaciones que han surgido han sido desde el punto de vista notarial, auditor y contable. En la propuesta se dice por qué se retrasó la disolución pero ahora nosotros vamos hacia adelante. También puedo estar de acuerdo en lo que decís de la forma, debido a los últimos cambios. Los balances y ese tipo de cosas son algo que a nosotros también nos cuesta entender y se deja en manos de los técnicos. Hemos intentado explicarlo antes del pleno. Tampoco nos parece que se aplace esta decisión, ya que la Secretaria y la Interventora han estado en ello estos últimos meses: valorando bienes, consultando a Hacienda, etc.” |
| Esateko besterik ezean, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:<br><br>Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Aurkako botoak: 0<br>Abstentzioak>. 5 (Beasaingo EH Bildu) | Debatido suficientemente se ha sometido a votación obteniéndose el siguiente resultado:<br><br>Votos a favor: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Votos en contra: 0<br>Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu) |

| | |
|---|---|
| Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena | En consecuencia, se ha aprobado la propuesta con la mayoría absoluta. |
| d.- <u>BEASAIN LANTZEN. BEASAIN LANTZEN BEHIN BETIKO DESEGITEA ETA LIKIDATZEA</u>. 2021IDBO0031<br><br>Antolakuntza batzordeak bere gain hartutako Likidadorearen proposamenaren berri eman da, hau da: | d.- <u>BEASAIN LANTZEN. EXTINCIÓN DEFINITIVA Y LIQUIDACIÓN DEFINITIVA DE BEASAIN LANTZEN.</u><br><br>Se da cuenta de la propuesta del Liquidador asumida por la Comisión de Organización: |
| "*Beasain Lantzen enpresaren likidatzaileak honako proposamen hau aurkeztu dio antolakuntzako informazio-batzordeari, irizpena eman dezan:*<br><br>*AURREKARIAK*<br><br>*I.- 2015-12-22an, Beasain Lantzen, S.A.ren Batzar Nagusiak erabaki zuen sozietatea (SCIL) desegitea, Administrazio Kontseiluko karguak bertan behera uztea, sozietatearen likidatzailea izendatzea eta hasierako balantzea onartzea; izan ere, Foru Ogasunari hainbat kontsulta egin ondoren, erantzun zen desegitearen ondoriozko ondorio ekonomikoak entitate eskasa zuela, Loinatz futbol-zelaia eta kiroldegia eraikitzeko obren ondorioz kendutako BEZaren kuoten erregularizazioa ez zelako aplikatu behar.*<br><br>*II.- Horren ondorioz, 2016-01-12an, likidazioan dagoen eta kide bakarrekoa den "Beasain Lantzen SA Merkatal Sozietatearen desegite-eskritura publikoa formalizatu zen, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu zen 2016-02-2an, 2699 liburukian, 105. folioan, 20. inskripzioan, SS-20778 orrian.*<br><br>*III.- Disolbatze eskritura formalizatu ondoren, Udalbatza Osoak 2016-02-04an egindako bileran erabaki zuen, INSTALACIONES DEPORTIVAS MASQUATRO, S.L.rekin sinatutako kontratua Beasaingo Antzizar kiroldegiaren kudeaketa osoa emateko, BESAINGO KIROLAREN UDAL FUNDAZIOAri lagatzea, Fundazio horren Estatutuetako 4.* | *"La liquidadora de Beasain Lantzen somete a dictamen de la comisión informativa de antolakuntza la siguiente propuesta:*<br><br>*ANTECEDENTES*<br><br>*I.- El 22-12-2015 la Junta General de Beasain Lantzen, S.A. acordó disolver la Sociedad (SCIL), revocar los cargos del Consejo de Administración, nombrar liquidadora de la Sociedad y aprobar el balance inicial, ya que tras diversas consultas realizadas a la Hacienda Foral la respuesta fue que la repercusión económica derivada de la disolución era de escasa entidad por no resultar de aplicación la regularización de las cuotas de IVA deducidas, como consecuencia de las obras de construcción del polideportivo y campo de futbol de Loinatz.*<br><br>*II.- Como consecuencia de ello, el 12-01-2016 se formalizó la escritura pública de disolución de la Sociedad Mercantil "Beasain Lantzen, S.A." unipersonal en liquidación y se inscribió en el Registro Mercantil el 2-02-2016 al Tomo 2699, Folio 105, Inscripción 20ª, Hoja SS-20778.*<br><br>*III.- Tras formalizarse la escritura de disolución, el Ayuntamiento Pleno en la sesión del 4-02-2016, acordó ceder el contrato para la gestión integral del complejo deportivo Antzizar de Beasain suscrito entre la referida sociedad e INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L., a la FUNDACIÓN PUBLICA DE DEPORTES DE BEASAIN, trasladándole el* |

| | |
|---|---|
| *artikuluan aurreikusitako eskumenen eskualdaketa eginez aurrerantzean Beasain Lantzen, S.A.ren posizioan subrogatu ahal izateko.* | *pleno ejercicio de las competencias definidas en el art. 4 de los Estatutos de la citada Fundación, para que subrogarse en la posición de Beasain Lantzen, S.A.* |
| *Horretaz oinarrituta, 2016-05-4an Antzizar kiroldegiaren kudeaketa osoa emateko, BEASAIN KIROL FUNDAZIO PUBLIKOAK eta INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.Lren artean kontratua sinatu zen.* | *En base a ello, el 4-05-2016 se formalizó el contrato entre la FUNDACIÓN PÚBLICA DE DEPORTES DE BEASAIN e INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L., para la gestión integral del polideportivo Antzizar.* |
| *IV.- Ondoren, ordea, Foru Ogasuna, Beasain Lantzen, S.A. sozietateari dagokion espedientea berrikustearen ondorioz, eta hura desegiteko aukeraren ondorioz, Udalarekin harremanetan jarri zen, aurretik adierazitakoa bertan behera utzita, eta adierazi zuen aipatutako datan (2015eko abenduan) sozietatea desegiteak berekin ekarriko zuela Foru-Ogasunari 276.026,76 €ko BEZaren kuotak erregularizatzea.* | *IV.- Con posterioridad, sin embargo, Hacienda Foral, a resultas de una nueva revisión del expediente concerniente a la sociedad Beasain Lantzen, S.A. y la posibilidad de su disolución, se pone en contacto con el Ayuntamiento desdiciéndose de lo afirmado anteriormente y señalando que la disolución de la Sociedad a la fecha indicada (diciembre de 2015), implicaría regularizar cuotas de IVA a abonar a Hacienda Foral por importe de 276.026,76 €.* |
| *V.- Hori jakin ostean, Udalbatzak 2016-12-22ko bilkuran erabaki zuen 2016-02-04ko osoko bilkuraren erabakia bertan behera uztea, eta, ondorioz, III aurrekarietan aipatutako 2016-05-4ko kontratuaren eraginkortasuna etetea, Sozietatea behin betiko desegin arte.* | *V.- Tras tener conocimiento de lo indicado el Ayuntamiento Pleno en la sesión del 22-12-2016, acordó suspender el acuerdo plenario del 4-02-2016 y por ende la eficacia del contrato de 4-05-2016 mencionado en el antecedente III, hasta la disolución definitiva de la Sociedad.* |
| *VI.- 2019-05-23an behin betiko disolbatu zen kiroldegiko organismo autonomoa (kirol fundazio Publikoa). GAO: 2019-05-31.* | *VI.- En la sesión plenaria del 23-05-2019, se disolvió definitivamente el organismo autónomo del polideportivo (fundación pública de deportes). BOG: 31-05-2019.* |
| *VII.- 2015etik gaur egunera arte igarotako denbora, Sozietateak:* | *VII.- El tiempo transcurrido desde 2015 hasta nuestros días, la Sociedad:* |
| *- Kiroldegiko zerbitzu integrala ematen jarraitu du zeharkako kudeaketaren bidez, eta, horri esker, Foru Ogasunari ez zaio itzuli behar izan inbertsioen erregularizazio gisa kendutako BEZaren zati bat.* | *- Ha continuado con la prestación del servicio integral del polideportivo mediante gestión indirecta y ello ha permitido no tener que devolver a la Hacienda Foral parte del IVA deducido en concepto de regularización de inversiones.* |
| *- Sozietatearen gainerako helburuari dagokionez, jarduera kontserbatzailea baino ez da izan.* | *- Respecto al resto de su objeto social la actividad ha sido meramente conservativa.* |
| *VIII.- Ondorioz, uztailaren 2ko 1/2010 Errege Lege Dekretuaren 363. Artikuluan aurreikusitako* | |

| | |
|---|---|
| *arrazoirik eman gabe, sozietatea desegitea proposatzen da, aldez aurretik harreman juridiko guztiak kitatuz eta likidatuz, sozietateak bere helburu sozialari dagokionez jarduerarik ez duelako, kiroldegiaren kudeaketari dagokionez izan ezik. Hori guztia, Aipatutako Errege Lege Dekretuaren 368. Artikuluaren babesean (Kapital-sozietatea desegin ahal izango da batzar orokorrak, estatutuak aldatzeko ezarritako betekizunekin hartutako erabaki hutsez).* | *VIII.- En consecuencia, sin que concurra ninguna de las causas de disolución enumeradas en el art. 363 del Real Decreto Ley 1/2010, de 2 de julio, se propone disolver la Sociedad saldando y liquidando previamente todas las relaciones jurídicas, por la inactividad de la sociedad en lo que respecta a su objeto social, salvo en lo referido a la gestión del polideportivo. Todo ello al amparo de lo dispuesto en el art. 368 de la citado Real Decreto Ley (La sociedad de capital podrá disolverse por mero acuerdo de la junta general adoptado con los requisitos establecidos para la modificación de los estatutos).* |
| *IX.- Sozietatea desegiteko, beharrezkoa da:* | *IX.- Para proceder a la disolución de la Sociedad es preciso:* |
| *- Ondasunen inbentario bat egitea haien balorazioarekin.*<br>*- Sozietatearen balantzea egitea, osoko bilkura egiten den egunean itxita.* | *- Formar un inventario de bienes con su valoración.*<br>*- Realizar el balance de la Sociedad cerrado a fecha de la celebración de la sesión plenaria.* |
| *X.- Sozietatea ondasunen inbentarioa eta beraien balorazioa ondorengoa da:* | *X.- El inventario de bienes de la Sociedad y la valoración de los mismos es la siguiente:* |
| *1.- Ittolako B-6 zenbakia duen industria-<u>pabiloia</u>: 240.821,17 €* | *1.- <u>Pabellón</u> industrial señalado con el número B-6 de Ittola: 240.821,17 €* |
| *Jarduera ekonomikoak garatzeko besterentzera edo errentamendura bideratua.* | *Destinado a su enajenación o arrendamiento para desarrollo de actividades económicas.* |
| *Titulua: Beasain Lantzen, S.A.k emandako obra berriaren aitorpen-eskritura, 2008-06-27koa, 1255, protokolo zenbakia.* | *Título: escritura de declaración de obra nueva otorgada por Beasain Lantzen, S.A. de 27-06-2008, nº de protocolo 1255* |
| *2.- <u>Etxebizitzak</u>: 1.047.000 €* | *2.- V<u>iviendas</u>: 1.047.000 €* |
| *a.- Etxebizitza Errekarte kaleko 31-1. esk.* | *a.- Vivienda en Errekarte kalea, 31-1º dcha* |
| *b.- Etxebizitza Errekarte kalean 31, 4. ezk.* | *b.- Vivienda en Errekarte kalea, 31-4º izda* |
| *c.- Oriako pasealekuko 14 – 1. C etxebizitza.* | *c.- Vivienda Paseo del Oria, 14 - 1º C.* |
| *d.- Oriako pasealekuko 14 – 2. D. Etxebizitza.* | *d.- Vivienda Paseo del Oria, 14 - 2º D.* |
| *e.- Oriako pasealekuko 14 – 3. B etxebizitza.* | *e.- Vivienda Paseo del Oria, 14 - 3º B.* |
| *f.- Oria pasealekua 14, 4. D.* | *f.- Vivienda Paseo del Oria, 14 - 4º D.* |
| *g.- Oria pasealekua 14, 5. A etxebizitza* | *g.- Vivienda Paseo del Oria, 14 - 5º A* |

| | |
|---|---|
| *Titulua: Udalak Sozietateari etxebizitzak ematen dizkio bere 2002-01-29 eratze-eskrituran (protokolo zenbakia, 165).*<br><br>*3.- Osasun-zentroko sotoko solairuko garaje-plaza: 77.725,27 €*<br><br>*a.- Soto solairuko BEDERATZI zenbakia (G9.*<br><br>*b.- Soto solairuko HOGEITA HAMABOST zenbakia (G35).*<br><br>*c.- Sotoko solairuko HOGEITA HAMASEI ZENBAKIA (G36).*<br><br>*Titulua: Beasain Lantzen, S.A.k emandako obra berriaren aitorpen-eskritura, 2007-05-03koa, 709, protokolo zenbakia.*<br><br>*4.- Lokalak: 68.319,67 €*<br><br>*a.- Joan XXIII kaleko 4. zenbakiko beheko solairuko 2. zenbakiko merkataritza-lokala.*<br><br>*b.- Joan XXIII, 6ko beheko solairuko 1 zenbakiko merkataritza-lokala.*<br><br>*Titulua: Beasain Lantzen, S.A.k emandako obra berriaren aitorpen-eskritura, 2021-12-19koa, 1675, protokolo zenbakia.*<br><br>*5.- Ittola II 48 alderdian kokatutako hiri lursailak kontsolidatu eta urbanizatu gabekoak: 270.021,31 €*<br><br>*6.- Landa lurrak: 946 m²*<br><br>*Bi terrenoen baloraketa: 270.021,31 €*<br><br>*Titulu bi terrenoentzat: kapitala handitzeari buruzko eskritura, 2004-09-17koa eta hau osatzen duena, 2005-06-07koa (protokolo zenbakia, 940).*<br><br>*7.- Kiroldegiaren instalazioak: 11.087.862,00 € (lurzoruaren balioa: 1.381.413 €+ eraikuntzaren balioa: 9.706.449 €).*<br><br>*Titulua: Kapitala handitzeko eskritura, azalerako eskubide emakidadunaren ekarpenaren bidez* | *Título: El Ayuntamiento aporta a la Sociedad las viviendas en escritura de constitución de la misma de 29-01-2002 (nº de protocolo, 165).*<br><br>*3.- Plazas de garaje situadas en la planta sótano del centro de salud: 77.725,27 €*<br><br>*a.- Nº NUEVE (G9) de la planta sótano.*<br><br>*b.- Nº TREINTA Y CINCO (G35) de la planta sótano.*<br><br>*c.- Nº TREINTA Y SEIS (G36) de la planta sótano.*<br><br>*Título: escritura de declaración de obra nueva otorgada por Beasain Lantzen, S.A. de 03-05-2007, nº de protocolo 709*<br><br>*4.- Locales: 68.319,67 €*<br><br>*a.- Local comercial nº 2 de la planta baja de Joan XXIII, 4*<br><br>*b.- Local comercial nº 1 de la planta baja de Joan XXIII, 6*<br><br>*Título: escritura de declaración de obra nueva otorgada por Beasain Lantzen, S.A. de 19-12-2012, nº de protocolo 1675*<br><br>*5.- Terrenos urbanos no consolidados y no urbanizados, sitos en el área 48, Ittola II: 27.840,00 m²*<br><br>*6.- Terrenos rústicos: 946 m²*<br><br>*Valoración de ambos terrenos: 270.021,31 €*<br><br>*Título para ambos terrenos: escritura de ampliación de capital de 17-09-2004 y escritura complementaria de la misma de 7-06-2005 (nº de protocolo, 940).*<br><br>*7.- Instalaciones del Polideportivo: 11.087.862,00 € (valor suelo: 1.381.413 € + valor construcción: 9.706.449 €).*<br><br>*Título: escritura de ampliación de capital mediante la aportación del derecho* |

| | |
|---|---|
| *2005-07-29koa (1286, protokolo zenbakia) eta 2007-01-16ko eskritura (96, protokolo zenbakia) aurrekoa zuzentzen duena.* | *concesionario de superficie 29-07-2005 (nº de protocolo, 1286), y rectificación de 16-01-2007 de la misma (nº de protocolo, 96).* |
| *XI.- Sozietatearen balantzea 2021-12-09an itxitakoa dokumentu honen I Eranskinean jasota dagoena da.* | *XI.- El balance de la Sociedad cerrado a fecha de 09-12-2021, es el que consta como Anexo I a este documento. En él no constan deudas dado que:* |
| *1.- Udalbatzak (osoko bilkuran berean, baina proposamen hau onartzeko aurkeztu aurretik) likidazioan dagoen Beasain Lantzen, SAUren tokian subrogatu da eta Antzizar kiroldegiaren kudeaketa integralerako sinatutako kontratuen ondoriozko zorrak bere gain hartu ditu:* | *1.- El Ayuntamiento Pleno (en la misma sesión plenaria pero previo a la presentación de esta propuesta para su aprobación), se ha subrogado en la posición de Beasain Lantzen, SAU en Liquidación, asumiendo las deudas derivadas de los contratos suscritos para la gestión integral del polideportivo Antzizar:* |
| *a.- Zerbitzu emakida kontratua 2006-06-30ekoa eta ondorengo aldaketak.*<br>*b.- Zerbitzu-kontratua 2021-07-1ekoa.* | *a.- Contrato de concesión de servicios de 30-06-2006 y posteriores modificaciones .*<br>*b.- Contrato de servicios de 1-07-2021.* |
| *2.- Beste zor guztiak kitatu dira, eta, azken batean, hartzekodunen kredituak ordaindu dira.* | *2.- Se han saldado con terceros el resto de deudas pendientes, y en definitiva satisfechos los créditos de los acreedores.* |
| *3.- Beasain Lantzen sozietateak 461.046,05 € zor dizkio Udalari, udalbatzaren 2009-10-30eko erabakiaren bidez emandako maileguagatik, haren diruzaintzarik ezagatik eta ondorengo erregularizazioengatik.* | *3.- La Sociedad Beasain Lantzen adeuda al Ayuntamiento la cantidad de 461.046,05 €, por el préstamo otorgado en virtud de acuerdo plenario de 30-10-2009 por falta de tesorería de aquella y posteriores regularizaciones.* |
| *Hala eta guztiz ere, zor hori azkendu egin da «eskubideak bateratzen direlako», hau da, titular berean hartzekoduna eta zorduna batzeagatik.* | *Sin embargo, esta deuda se declara extinguida por "confusión", es decir por reunirse en un mismo titular la condición de acreedor y deudor.* |
| *Balantzean EZ DA zor galdagarri gisa agertzen, baizik eta 118 kontuan islatzen da baliabide propio gisa (bazkideen ekarpenak).* | *En el balance figura NO como deuda exigible sino que se refleja en la cuenta 118 como recursos propios (aportaciones de los socios).* |
| *XII.- Behin behin betiko likidatzen denean, Udala, Sozietatearen bazkide bakarra, kapital osoa lokala denez, Beasain Lantzenen posizioan subrogatuko da, hau da:* | *XII.- Una vez se liquide definitivamente, el Ayuntamiento, socio único de la Sociedad por ser ésta de capital íntegramente local, se subrogará en la posición de Beasain Lantzen, de manera que:* |
| *1.- <u>Amaituta geratzen da</u> 2005-07-29ko eskrituraren bidez Beasain Lantzen enpresari* | *1.- <u>Se extingue</u> el derecho concesionario de superficie otorgado a favor de Beasain Lantzen* |

| | |
|---|---|
| *emandako azalera-eskubide emakidaduna eta 2007-01-16ko eskritura horrekiko egindako zuzenketa. Ondorioz, Udalak Antzizar kiroldegiko lurren eta instalazioen erabateko titulartasuna berreskuratuko du.* | *mediante escritura de 29-07-2005, y rectificación de 16-01-2007 de la misma. En consecuencia, el Ayuntamiento pasa a recuperar la plena titularidad de los terrenos e instalaciones del polideportivo Antzizar en donde se ubican éstas.* |
| *2.- Udala, IX aurrekarian zerrendatutako beste ondasunen titularra izatera pasatu da.* | *2.- El Ayuntamiento pasa a ser titular del resto de bienes relacionados en el antecedente X.* |
| *3.- Udala kontratatzailearen lekuan subrogatuko da kiroldegiko zerbitzu integrala emateko 2021-07-01eko kontratuan. Kontratu hori egungo kontratistarekin ematen jarraituko da, kontratua amaitu arte.* | *3.- El Ayuntamiento pasa a subrogarse en la posición del contratante en el contrato de 1-07-2021 de prestación del servicio integral del polideportivo, que continuará prestándose con la actual contratista, hasta el vencimiento del contrato.* |
| *4.- Udala errentatzailearen lekuan subrogatuko da:*<br><br>*a.- Osasun-zentroaren sotoko solairuko HOGEITA HAMASEI (G36) zenbakidun garaje-plaza erosteko aukera ematen duen alokairu-kontratua.*<br><br>*b.- Errekarte kaleko 31-4. ezk. etxebizitza alokatzeko kontratua.* | *4.- El Ayuntamiento pasa a subrogarse en la posición del arrendador en:*<br><br>*a.- Contrato de alquiler con opción de compra formalizado con respecto a la plaza de garaje Nº TREINTA Y SEIS (G36) de la planta sótano del centro de salud.*<br><br>*b.- Contrato de alquiler de vivienda de Errekarte kalea, 31-4º izda.* |
| *5.- Udala izango da aseguruduna sozietateak hitzartutako aseguru-polizen kasuan, hau da:*<br><br>*a.- Etxe-poliza, MAPFRE-rekin, etxebizitza, lokal eta garajeetarako.*<br><br>*b.- Kalte-poliza AXArekin Ittola pabilioirako.*<br><br>*c.- Erantzukizun zibileko poliza MAPFRErekin Antzizar Kiroldegia, estali gabeko igerilekuak eta Loinatz futbol-zelaia egiteko.* | *5.- El Ayuntamiento pasa a ser el asegurado en las pólizas de seguros concertadas por la Sociedad, esto es:*<br><br>*a.- Póliza de hogar con MAPFRE para las viviendas, locales y garajes.*<br><br>*b.- Póliza de daños con AXA para el pabellón de Ittola.*<br><br>*c.- Póliza de responsabilidad civil con MAPFRE para Antzizar Kiroldegia, piscinas descubiertas y campo de futbol Loinatz.* |

| | |
|---|---|
| *6.- Sozietateari ordaindu gabeko zorretan <u>hartzekoduna</u> izango da, hau da:*<br><br>*- INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L. enpresak ordaindu ez duen kanon finkoaren zenbatekoa, 2020. ekitaldiari dagokiona (11.297.97 €) eta 2021eko ekainarekiko zatiari dagokiona (12.298,67 €): 23.596,64 € (BEZa barne).*<br><br>*- 36. garaje-plazaren alokairuaren zenbatekoa, abenduari dagokiona: 213,38 €.*<br><br>*OINARRI JURIDIKOAK*<br><br>*Titulartasun publikoko kapital soziala duten tokiko merkataritza-sozietateak Administrazio Zuzenbideko eta Zuzenbide Pribatuko arauek arautuak.*<br><br>*<u>Administrazio-zuzenbideko arauak</u>:*<br><br>*• Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85. artikulua eta hurrengoak (27/2013 Legeak emandako idazkeran).*<br><br>*• 781/1986 Errege Lege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.*<br><br>*<u>Zuzenbide pribatuko arauak</u>:*<br><br>*• 1/2010 Errege Lege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapitaleko Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena. 363. artikulua eta hurrengoak.*<br><br>*Ondorioz, ANTOLAKUNTZA batzordeak <u>Udalbatzari</u> honako erabaki-proposamen hau aurkezten dio:* | *6. - Pasa a ser el <u>acreedor</u> en deudas no satisfechas a la Sociedad, esto es:*<br><br>*• Importe del canon fijo no abonado por INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L., correspondientes a parte del canon de 2020 (11.297.97 €) y la parte correspondiente hasta junio de 2021 (12.298,67 €): 23.596,64 € (IVA incluido).*<br>*• Importe del alquiler de la plaza de garaje nº 36 correspondiente al mes de diciembre: 213,38 €.*<br><br>*FUNDAMENTOS JURÍDICOS*<br><br>*Las Sociedades Mercantiles Locales cuyo capital social es de titularidad pública, están*<br><br>*reguladas por normas tanto de Derecho Administrativo como de Derecho Privado.*<br><br>*<u>Normas tanto de Derecho Administrativo</u>:*<br><br>*• Art. 85 y siguientes de la Ley 7/1985, de 2 de abril (en su redacción dada por la Ley 27/2013), reguladora de las Bases de Régimen Local.*<br><br>*• RDLeg 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las Disposiciones Legales Vigentes en materia de Régimen Local –TRRL-.*<br><br>*<u>Normas de Derecho Privado</u>:*<br><br>*• RDLeg 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital- en lo sucesivo TRLSC. Artículo 363 y siguientes.*<br><br>*En consecuencia, la comisión de ANTOLAKUNTZA somete a la consideración del <u>Ayuntamiento Pleno</u> la siguiente propuesta de acuerdo:* |

| | |
|---|---|
| *<u>Lehenengoa</u>. Sozietatearen ondasunen inbentarioa onartzea.* | *<u>Primero</u>. Aprobar el inventario de bienes de la Sociedad.* |
| *<u>Bigarrena</u>. 2021-12-09ko datarekiko azken balantzea onartzea,* aurrekarietako XI,3 puntuan adierazitakoa kontuan izanda. | <u>Segundo</u>. Aprobar el balance final a fecha de 9-12-2021, teniendo en cuenta lo dispuesto en el punto XI, 3 de los antecedentes. |
| Balantzea onartzea eragiketen likidazio-txostenarekin batera, bai eta ondoriozko ondarea zatitzeko proiektua ere, zeinaren onuradun bakarra Udala izango baita. | Aprobar el balance junto con el informe de liquidación de operaciones, así como el proyecto de división del patrimonio resultante, cuyo exclusivo beneficiario será este Ayuntamiento. |
| *<u>Hirugarrena</u>. Leire Artola Ugalde likidatzaileari eskatzea sozietatea azkentzeko eskritura publikoa eman dezala, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 395.1 artikuluaren arabera, honako hauek gehituko baitzaizkio:*<br>• *Likidazioaren azken balantzea, inpugnatu ez dela jasota utziz.*<br>• *Bazkideen zerrenda (Udala bakarrik), bazkideen nortasuna eta likidazio-kuotaren balioa adierazita.*<br>• *Hartzekodunak ordaindu izana edo kredituak aseguratu izana.* | *<u>Tercero</u>. Requerir a la liquidadora, Dª Leire Artola Ugalde, para que otorgue escritura pública de extinción de la Sociedad con las manifestaciones previstas en el art. 395.1 del Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital -LSC-, a la que se incorporará:*<br>• *Balance final de liquidación dejando constancia de que no ha sido impugnado.*<br>• *La relación de los socios (el Ayuntamiento exclusivamente), en la que conste su identidad y el valor de la cuota de liquidación.*<br>• *Haber sido satisfechos los acreedores o haber sido asegurados sus créditos.* |
| *<u>Laugarrena</u>. Sozietatea behin betiko azkentzeko eskritura publikoa Foru Ogasunean aurkezteko dagokion likidazioa praktikatzeko.*<br>*<u>Bosgarrena</u>. Sozietatea behin betiko azkentzeko eskritura publikoa ondorengo erregistroetan aurkeztea:*<br>• *Merkataritza Erregistroan, azkendu den sozietatearen liburu eta agiriekin batera, Erregistroan bertan gordailutzeko, sozietateari buruzko idazkun guztiak ezerezteko, eta, horrela, <u>sozietatea behin betiko azkentzea</u>.* | *<u>Cuarto</u>. Presentar la escritura pública de extinción definitiva de la Sociedad en la Hacienda Foral, a efectos de su liquidación.*<br>*<u>Quinto</u>. Presentar la escritura pública de extinción definitiva de la Sociedad:*<br>• *En el Registro Mercantil junto con los libros y documentos de la sociedad extinguida para depósito en el propio Registro al objeto de cancelar todos los asientos relativos a la sociedad, quedando de esta manera <u>extinguida definitivamente la Sociedad</u>.*<br>• |

<table>
<tr>
<td>• Jabetza Erregistroan aurkeztea, honetarako:<br><br>- Azaleraren emakida-eskubidea azkentzeko.<br>- IX aurrekariak zerrendatutako ondasunak Udalaren izenean inskribatzeko.<br><br><u>Seigarrena</u>. Sozietatea behin betiko azkentzeko erabakia ondorengoei jakinaraztea:<br><br>- Antzizar Kiroldegiko kudeaketa integraleko zerbitzua ematen duen kontratistari, kontratua berritze aldera.<br>- G36 garaje plaza eta Errekarte kalea, 31-4º ezk.ko etxebizitzaren maizterrei.<br>- MAPFRE eta AXA, Aseguru etxeei.”</td>
<td>• En el Registro de la Propiedad para:<br><br>- Extinguir el derecho concesionario de superficie.<br>- Inscribir a nombre del Ayuntamiento los bienes relacionados en el antecedente IX.<br><br><u>Sexto</u>. Comunicar el acuerdo de extinción definitiva de la Sociedad a:<br><br>- La contratista que presta el servicio de gestión integral del Polideportivo Antzizar, a los efectos de efectuar la novación del contrato.<br>- Los/as arrendatarios/as de la plaza de garaje G36 y de la vivienda de Errekarte kalea, 31-4º izda.<br>- Los aseguradores, MAPFRE y AXA.”</td>
</tr>
<tr>
<td>Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:</td>
<td>En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:</td>
</tr>
<tr>
<td colspan="2">Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Por nuestra parte también decir que las formas no han sido las correctas. Presentarlo a última hora no nos parece de recibo porque son temas que no podemos entender de igual manera que lo hace un técnico. En todo caso nuestro voto será a favor porque consideramos que las deudas de Beasain Lantzen es como si fueran del Ayuntamiento. Estamos a favor de que se liquide la sociedad porque no entendemos la figura de Beasain Lantzen.”</td>
</tr>
<tr>
<td>Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) jaunak: “Uste dut urtero galdetu dugula batzordeetan noiz desagertu behar zen Beasain Lantzen. Lehengo puntuan esandakoa errepikatuko nuke, baina gogorarazi nahi dut Beasain Lantzen-en helburua zein zen: babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea, lurzoru industriala kudeatzea. Uste dut gaurko helburuak ere badirela, nahiz eta azkeneko urteetan Beasain Lantzen-ek bere esfortzuak kiroldegia kudeatzea bideratu. Pauso ematen jarraitzeko eskua luzatzen dugu. Kiroldegiaren balorazioaren inguruan esan eta hain zuzen ere MAS QUATROri dagokionez, azkeneko boladan nahiko goraberatsua izan dela, batez ere, azkeneko ekaina-uztailean. Datorren urtean aukera bat badugu Kiroldegiaren kudeaketa</td>
<td>Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “Creo que todos los años hemos preguntado en las comisiones cuándo iba a desaparecer Beasain Lantzen. Repetiría lo dicho en el punto anterior, pero quiero recordar cuál era el objetivo de Beasain Lantzen: promover viviendas de protección oficial, gestionar suelo industrial. Creo que también son objetivos de hoy, aunque en los últimos años Beasain Lantzen haya centrado sus esfuerzos en gestionar el polideportivo. Tendemos la mano para seguir dando pasos. En cuanto a la valoración del Polideportivo y precisamente en lo que se refiere a MAS QUATRO, en los últimos tiempos ha sido bastante complicado, sobre todo el último junio-julio. El año que viene tenemos una oportunidad para repensar, dirigir y orientar</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| birpentsatzeko, zuzentzeko eta bideratzeko. Horretarako aba gunea izango dugu. Abstenitu egingo gara lehen aipatutako arrazoiengatik.” | la gestión del Polideportivo. Tendremos ocasión para ello. Nos abstendremos por los motivos antes mencionados. |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): “Sozietatea desegiteak ez du esan nahi zituen helburuak desegiten direnik, Udalak ere helburu horiek baditu ete bereak egiten ditu. Gauzak beste modu batean egitea eragiten duen instrumentu bat izan da eta orain iritsi da desegiteko momentua, azken urteotan denon desioa hori izan delako. MAS QUATROren inguruan esan dena horrela da baina egia da COVID-ak ere guzti honetan ez duela ezer lagundu. Falta dena da jakitea COVID-aren eragina zein izan den kiroldegiaren kudeaketa eta kontratuan. Orain Beasain Lantzen desegiten da eta hurrengo pausoa izango da guk beraiekin ditugun betebehar ekonomikoei aurre egitea, beraiek gurekin dituzten zorrak kitatzeko eskatu zaien bezala.” | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “La disolución de la sociedad no supone la anulación de los fines que perseguía, sino que el Ayuntamiento los hace suyos. Ha sido un instrumento que hace que las cosas se hagan de otra manera y ahora ha llegado el momento de disolverse porque en los últimos años ese ha sido el deseo de todos. Lo que se ha dicho de Mas Quatro es así pero también es cierto que la COVID no ha ayudado nada en todo esto. Lo que falta por conocer es cuál ha sido el impacto de la COVID-19 en la gestión y contrato del polideportivo. Ahora Beasain Lantzen se disuelve y el siguiente paso será hacer frente a las obligaciones económicas que nosotros tenemos con ellos, como se les ha pedido que paguen las deudas que ellos tienen con nosotros. |
| Esateko besterik ezean, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:<br>Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Aurkako botoak: 0<br>Abstentzioak>. 5 (Beasaingo EH Bildu)<br><br>Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena | Debatido suficientemente se somete a votación obteniéndose el siguiente resultado:<br>Votos a favor: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Votos en contra: 0<br>Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)<br><br>En consecuencia se ha aprobado la propuesta con la mayoría absoluta. |
| e.- <u>2022KO AURREKONTUA. 2022RAKO UDAL AURREKONTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA</u>. 2021EKBO0093 | e.- <u>PRESUPUESTO 2022. PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL PARA 2022.</u> |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): “Urteko udalbatza garrantzitsuena dugu gaurkoa. Gaur aurkeztuko ditugun aurrekontuen onartzeak emango bait dio arnasa urte betez udaletik eskaintzen diren hainbat eta hainbat zerbitzuei. Aurten ere, Udalak osatzen dugun alderdi politiko guztion ekarpenez osatutako aurrekontuak dira eta horrek ere politika sentitzeko modu bati erantzun nahi dio. Eskerrak eman nahi dizkizuet egindako ekarpenengatik, aurrekontu hobe bat ahalbidetu duzuelako. 18.374.337,49 € aurreikusi dira 2022rako buruan ditugun zerbitzu eta proiektuei aurre egiteko. 2021eko aurrekontuarekin alderatuta, %17ko igoera du datorren urterako aurrekontuak. Aurre egin beharreko zorrik ez | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “Hoy es el pleno más importante del año. La aprobación de los presupuestos que hoy presentamos posibilitará los innumerables servicios que se ofrecen desde el Ayuntamiento durante el año. Un año más, son unos presupuestos compuestos por las aportaciones de todos los partidos políticos que formamos el Ayuntamiento y eso responde a una forma de sentir la política. Quiero agradecer vuestras aportaciones, que han permitido un presupuesto mejor. Se prevén 18.374.337,49 € para hacer frente a los servicios y proyectos que tenemos en mente para el año 2022. El presupuesto para el año que viene tiene un incremento del 17% respecto al de 2021. No |

| | |
|---|---|
| daukagu. Aurrezki garbia, milioia eta zortziehun milakoa izatea aurreikusten da. Azpimarretan jarri nahi nuke inoiz bideratu diren kopururik altuena bideratu duela udal gobernuak behar gehien dutenentzat. 2021. urtea amaitzerako 100 pertsona gutxiago badaude ere langabetutan eta oraindik 500etik gora dauden lanik gabe eta ildo horretan enplegua sustatzea lehentzat jo dugu. Horretarako formakuntzan jarriko ditugu begiak aurten ere, Goierriko Eskola eta Goiekirekin elkarlanean. Berrabiarazi programaren bidez eta enpresa txikienak etorkizunari begira prestatzeko, hauen digitalizazio, dibertsifikazio eta nazio artetzea erraztu nahi da. Ekintzaile berrientzat Goiekiko enpresa-inkubadoreaz gain Anezka gunea ere eskaintzen jarraituko dugu. Tokiko merkataritzan jarduera ekonomia suspertzeko ekimenei dagokionez, lokal hutsak betetzeko alokairurako edo lokal-erosketarako dirulaguntzak, herrian erosketak egitera bultzatzeko sentsibilizazio kanpainak eta azokan fidelizazio kanpainak gauzatuko dira. Behar gehiena dutenentzat gizarte ongizateak %23ko igoera izango du eta indartu egingo da adinduei, mendeko pertsonak dituzten familiei, egoera berezian daudenei eta laguntza behar dutenei arreta emateko zerbitzua. Era berean familia bitartekaritza eta kale heziketa programak indartu egingo dira. Bereziki aipatu nahi nituzke esku hartze zerbitzuak. Hauei zuzendutako kopurua % 13 igoko bait da. Adin nagusiko pertsonak, adineko eta adin gabekoak familiak, egoera bereziko pertsonak, nagusien akonpainamendu programa, familia bitartekaritza eta lan heziketa programa izango dira indartuko direnak, beti ere, babesik gabe dauden pertsonak aintzat hartuaz. Ingurugiroan ematen ari diren pausoak ere jarraipena izango dute 2022an. Kiroldegian planta fotoboltaikoak jarri nahi dira, autokontsumoa sustatzeko kooperatiba sortzeko pausoak ematen hasiak gara, EKIOLA proiektuak argia ikusi dezan. Horiez gain datorren urtean ere ibaietako ekosistemak indartsu mantentzeko lanak burutuko ditugu. Porteria auzoan uholdegarritasuna bermatzeko lanekin jarraituko da. Behin proiektua amaitu eta lanak esleitu ondoren, eraikinak eraitsi eta inguruan berrurbanizatzeari ekingo zaio. Beasain ingurutuko duten natur-bide proiektuak ere ikusgai izango dira. Arizmenditik hasi eta San Martinera doanak eta Zumadi atzean dagoen sailekoak. Euskararen erabilerari dagokionez, Aittu taldearekin elkarlanean jarraitzeaz gain, azpimarretan jarri nahi da aisian eta kirol | tenemos deudas a las que hacer frente. Se prevé que el ahorro neto sea de un millón ochocientos mil. Me gustaría subrayar que el gobierno municipal ha destinado la cantidad más alta que se han destinado nunca para los más necesitados. A pesar de que a finales de 2021 hay 100 personas menos en paro, todavía hay más de 500 en paro, en este sentido hemos considerado prioritario fomentar el empleo. Para ello volveremos a poner los ojos en la formación, en colaboración con Goierriko Eskola y Goieki. Con el programa berrabiarazi y con el fin de formar a las empresas más pequeñas de cara al futuro, se pretende facilitar su digitalización, diversificación e internacionalización. Para los nuevos emprendedores, además de la incubadora de empresas Goieki, seguiremos ofreciendo el espacio Anezka. En cuanto a las iniciativas de reactivación económica de la actividad en el comercio local, se llevarán a cabo subvenciones para alquiler o compra de locales vacíos, campañas de sensibilización para incentivar la compra en el municipio y campañas de fidelización en la feria. Bienestar social experimentará un incremento del 23% para las personas necesitadas y se reforzará el servicio de atención a personas mayores, familias con personas dependientes, personas en situación especial y personas dependientes. Asimismo, se reforzarán los programas de mediación familiar y educación de calle. Me gustaría mencionar especialmente los servicios de intervención. La cantidad destinada a estos se incrementará en un 13%. Se reforzarán los `programas para las personas mayores de edad, las familias con mayores y menores, las personas en situación especial, el programa de acompañamiento de mayores, la mediación familiar y el programa de formación laboral, teniendo en cuenta a las personas en situación de desprotección. Los pasos que se están dando en el medio ambiente también tendrán continuidad en 2022. Se trata de instalar plantas fotovoltaicas en el polideportivo, estamos empezando a dar pasos para crear una cooperativa para fomentar el autoconsumo, para que el proyecto EKIOLA vea la luz. Además, el próximo año continuaremos con las labores de mantenimiento de los ecosistemas fluviales. Se continuará con los trabajos para evitar la inundabilidad en el barrio de Porteria. Una vez finalizado el proyecto y adjudicadas las obras, se procederá al derribo de los edificios y la reurbanización en las inmediaciones. También serán visibles los proyectos de caminos naturales que rodearán |

| | |
|---|---|
| munduan erabilera indartzeko Eusko Jaurlaritzarekin batera egingo den lana. Hizkuntza politikan, sormenak ere izango du bere lekua eta disko eta liburu azokari indartze bat eman nahi zaio. Igartza literatur bekak 25. edizioa beteko du eta merezi bezala ospatu nahi dugu. Gazteentzako hizkuntza errefortzu programarekin jarraitu nahi dugu, ikastetxeekin elkarlanean. Aurten burututako gazteria-diagnosia abiapuntu, gazteentzako hainbat ekintza gauzatuko dira. Landa auzoek ere badute protagonismoa aurrekontuan, auzoetan bizitzea erakargarriagoa egingo duten proiektuak dute kabida bertan. Aipatzekoa da jubilatuentzat Urbietxean irekiko den gune berria, irisgarritasuna eta kokaguneak herriari emango dion azpimarra bereizi bait du. Pertsona ororen duintasuna abiapuntu, emakume eta gizonen parekidetasunean aurrera pausoak emateko bideak jarriko dira herriko emakume eta talde feministekin batera, hainbat proiektuei jarraipena emanaz. Kirolak gizartean duen bisibilidadea kontuan hartuta, emakumeen ekintza sustatzearekin jarraituko dugu. Gune urbanoak ez guztiz garatuta dauden honetan, daukaguna mantentzea garrantzia hartu du guretzat eta geroz diru gehiago bideratzea darama halabeharrez. Pasa den urtearekiko atal honek %12ko igoera izan du. Jardineria txukun mantendu, argiterian berrikuntzak ezarri eta irisgarritasun ikuspegitik, asfaltaketa lanek izango dute presentzia egunerokoan. Martxan dauden obrak amaitu eta hobekuntza gehiago ere izango dira: ikastetxeetako eraikinetan, Ixabel Olano eta Trenbide parkeetan, Igartzako zelaian, kiroldegiko tabernan etab. Barrendain plaza, Porteria auzoko berrurbanizazioa, San Inazio kalea edo bonberiarako ere proiektuak berriak landuko dira.” | Beasain. Los que van desde Arizmendi a San Martín y los que hay detrás de Zumadi. En cuanto al uso del euskera, además de seguir colaborando con el grupo Aittu, se quiere poner en valor el trabajo que se realizará conjuntamente con el Gobierno Vasco para potenciar su uso en el mundo del ocio y el deporte. En política lingüística, la creatividad también tendrá su espacio y se quiere reforzar la feria del disco y el libro. La beca literaria Igartza cumple su 25 edición y queremos celebrarlo como se merece. Queremos continuar con el programa de refuerzo lingüístico para jóvenes, en colaboración con los centros escolares. A partir del diagnóstico de juventud realizado este año se llevarán a cabo diferentes acciones dirigidas a la juventud. Los barrios rurales también tienen su protagonismo en el presupuesto, tienen cabida en él proyectos que harán más atractiva la vida en los barrios. Cabe destacar el nuevo espacio que se abrirá a los jubilados en Urbietxea, que mejora la accesibilidad y el emplazamiento. Desde la dignidad de todas las personas, se pondrán los medios para avanzar en la paridad de mujeres y hombres junto con las asociaciones de mujeres y asociaciones feministas del municipio dando continuidad a distintos proyectos.<br>Teniendo en cuenta la visibilidad del deporte en la sociedad, continuaremos fomentando las actividades de las mujeres. Ahora que los núcleos urbanos están casi del todo desarrollados, para nosotros ha cobrado importancia mantener lo que tenemos y cada vez se destina más dinero a ello. Este apartado ha experimentado un incremento del 12% respecto al año pasado. Mantener ordenada la jardineria, renovar la iluminación y desde el punto de vista de la accesibilidad, los trabajos de asfaltado tendrán presencia en el día a día. Finalizarán las obras en marcha y también habrá más mejoras: en los edificios de los colegios, en los parques de Ixabel Olano y Trenbide, en el campo de Igartza, en el bar del polideportivo etc. Se trabajarán nuevos proyectos para la plaza Barrendain, la reurbanización del barrio de la Portería, la calle San Inazio y la bombería.” |
| Jarraian, Antolakuntza batzordeak ontzat emandako Alkatearen ondorengo proposamenaren berri eman da: | Seguidamente se ha informado la propuesta de Alcaldía aprobada por la Comisión de Organización: |

| | |
|---|---|
| "*Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko, abenduaren 19ko, 21/2003 Foru Arauaren 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetza honek 2022 urterako Udal Aurrekontua osatu du. Hori dela eta, Udalbatzaren onespenerako aurkezten da ondorengo*<br><br>*PROPOSAMENA*<br><br>*<u>Lehenik</u>.- 2022 urterako Aurrekontuaren espedientea onartzea, 18.374.337,49 eurotan estimatutako gastu eta sarreren egoera-orriak dituena, 21/2003 Foru Arauaren 6 artikularen arabera osatutako eranskinak eta Aurrekontua Gauzatzeko Udal arauaren IV. Kapituluaren aldaketa.*<br><br>*<u>Bigarren</u>.- 15 egun jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-betirako onartutzat emango da. Bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du dagokiona ebazteko*." | *"De conformidad con lo dispuesto por el art. 14.4 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, esta Alcaldía ha elaborado el Presupuesto municipal para el año 2022. Es por ello que se somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente*<br><br>*PROPUESTA*<br><br>*<u>Primero</u>.- Aprobar el expediente del Presupuesto municipal para el año 2022 cuyo estado de gastos e ingresos estimativos asciende a 18.374.337,49 €, los anexos elaborados de acuerdo con el art. 6 de la N. F. 21/2003, y la modificación del capítulo IV de la Norma municipal de ejecución presupuestaria.*<br><br>*<u>Segundo</u>.- Someter a exposición pública por espacio de 15 días, transcurridos los cuales sin que se presenten reclamaciones, se tendrá por definitivamente aprobado. En caso contrario, el Pleno dispondrá del plazo de un mes para resolverlas* |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak azaldu dituzte: | En el turno de intervenciones los asistentes han expresado las siguientes opiniones: |

Eva Alvarez Atanez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nuestras propuestas para este presupuesto, han sido diferentes: en mejoras urbanísticas mencionar, mejora del parque de Mariarats y de la calzada de la calle Erauskin hacia Sagastiguti, no sólo del acceso rodado sino también de la vía peatonal, arreglo de la escalera de Beasaingo Institutoa (propuesta que anteriormente también la hemos realizado), en temas sociales: ayudas para gastos energéticos, no cubiertos por las ayudas de emergencia social, campaña de sensibilización para no abandono de animales (colaboración con asociaciones para adopción de animales), campaña de sensibilización ambiental (fuera plásticos, instalación de una obra escultórica que visibilice la problemática de los vertidos plásticos), mejora de infraestructuras: instalación de punto gratuito wifi (propuesta al amparo de una línea de ayudas europea ), instalación de velocímetros como apoyo de campaña para sensibilización de tráfico, renovación de señalítica de callejero en la zona de Igartza, dotar a los semáforos de sistema sonoro para personas con discapacidad visual, instalación de pantallas de información en la Porteria e instalar más aparcamientos para bicis y patinetes en el barrio Ezkiaga así como instalación de tótems de herramientas y de cargadores para vehículos eléctricos. Todas estas propuestas no son nuevas, sino que anteriormente algunas ya se han hecho. Hace dos años propusimos la mejora de Mateo Muxika y la calle Arantzazu, pero no se ha llevado a cabo y además se nos ha dicho que es posible que no se haga por su elevado costo. Esto pone en duda el compromiso político existente. El año pasado se dijo que se haría un estudio y se llevaría a cabo. Esto al igual que la reforma de la calle San Inazio, lleva dando vueltas desde el principio de la legislatura. En relación a proyecto del parque de Ixabel Olano, nosotros propusimos que en el

| | |
|---|---|
| parque se instalara un baño público. No se nos deja claro si en este proyecto se contempla eso. Agradecemos que la mayoría de propuestas realizadas se hayan recogido en el presupuesto, pero además de que algunas de las cantidades reflejadas son irrisorias, las dudas a las que hemos hecho referencia nos llevan a votar que no.” | |
| Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Mateo Múxika eta Arantzazu kalea. Proiektua egin da eta aztertu ondoren ikusi da igogailuaren kostua egitea gutxi gorabehera izango dela, milioi bat eurokoa. Diru horrekin, Nafarroa Etorbidea eta Oriamendi kaleen arteko igogailua lau aldiz egin dezakegu. Horrezaz gain igogailu horren mantenua ere hilabetero seiehun zazpiehun eurokoa izango litzateke. Hori kontuan izanda iruditzen zaigu obra desproportzionatua dela eta gainera horrekin bakarrik ez dela kale horietako irisgarritasuna konpontzen. Gure konpromisoa izan zen aztertzea eta aztertu da eta sentsu horretan ez dago inolako kontraesanik. Ixabel Olano parkea: parte-hartze prozesua egon da eta herritarren 40 ekarpenetik bakar batek bakarrik eskatu du komun publikoa instalatzea. Hori kontuan izanda eta ikusita parke horretatik Igartza kaleko komunera dagon distantzia, ez zaigu iruditzen herritarren eskaera zabala denik. Beste askotan pasatzen den bezala, lehenik proiektua egiteko kontusaila jartzen da eta gero bideragarria bada obra egiteko aurreikusten da. Aurreko aurrekontuetan kiroldegiko planta fotoboltaikoak egiteko kontusaila jarri zen, baina proiektua egiteko. Hori aurrera eraman da eta gaur bertan kreditu aldaketa egin da gauzatu ahal izateko.” | Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): Las calles Mateo Múxika Arantzazu. Se ha realizado el proyecto y tras analizarlo se ha visto que el coste del ascensor será aproximadamente de un millón de euros. Con ese dinero podemos hacer cuatro veces el ascensor entre Nafarroa Etorbidea y Oriamendi. Además, el mantenimiento de este ascensor sería de seiscientos o setecientos euros mensuales. Teniendo en cuenta esto, consideramos que la obra es desproporcionada y que, además, sólo con ello no se soluciona la accesibilidad en esas calles. Nuestro compromiso fue analizar y lo hemos hecho y en ese sentido no hay ninguna contradicción. Ixabel Olano parkea: ha habido un proceso participativo y sólo una de las 40 aportaciones de los ciudadanos ha solicitado la instalación de un baño público. Teniendo en cuenta esto y vista la distancia que hay desde ese parque hasta el baño de la calle Igartza, no nos parece que la demanda ciudadana sea amplia. Como pasa en otras muchas ocasiones, primero se pone la partida para la realización del proyecto y luego si es viable se prevé la ejecución de la obra. En los presupuestos anteriores se habilitó una partida para la realización de las plantas fotovoltaicas del polideportivo, pero para la realización del proyecto. Esto se ha llevado a cabo y hoy mismo se ha realizado una modificación de crédito para poder materializarlo.” |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bat egiten dut Adur-ek esan duenarekin. Guri zuhurtziaz jokatzea tokatzen zaigu eta milioi batek hor egin dezakeen inpaktua kontuan hartuta, gure lehentasunetan ez da sartzen. Zuentzat agian, hori izan da arrazoia aurrekontuari ezezkoa emateko. Zilegi da baina ez zait erabat orekatua iruditzen. Konpromisua hartu zen eta bete da. Komunari buruz esan, proiektua aztertzeko aukera izango dela eta erabakiko da gure lehentasunetan sartzen den edo ez. Kiroldegiarekin, esandakoa. Horiek izan dira zuen interbentzioan azkena aipatu duzuena. Horrezaz gain, esanda bezala aurrekontua aberastu egin da, wifi puntua onartu da, hain zuzen ere, Ezkiagan kazetagunean jarriko da (Igartzan wifi puntu libre bat dugu). | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “Comparto lo que ha dicho Adur. A nosotros nos toca actuar con prudencia y teniendo en cuenta el impacto que puede hacer ahí un millón, no entra en nuestras prioridades. Quizá para vosotros, esa ha sido la razón del no al presupuesto. Es lícito, pero no me parece del todo equilibrado. Se asumió el compromiso y se ha cumplido. En cuanto a baño, decir que habrá oportunidad de analizar el proyecto y se decidirá si entra o no en nuestras prioridades. Con el polideportivo, lo dicho. Estos han sido los últimos que habéis comentado en vuestra intervención. Además, como se ha dicho, se ha enriquecido el presupuesto, se ha aprobado el punto wifi, que se colocará en el espacio Kzgunea de Ezkiaga (en Igartza |

<table>
<tr><td>Pantailekin berdin. Hasiera batean herri gunean jarri ziren, iazko urtean Igartzan jarri zen eta egokia iruditzen zaigu Ezkiaga auzora ere zalbaltzea. Hartutako konpromisoak bete dira. Guri tokatzen zaigu aurrekontua kudeatzea modu onenean herritarrei begira eta horretan saiatzen gara.”</td><td>tenemos un punto wifi libre). Igual con las pantallas. En un primer momento se instalaron en el núcleo urbano, el año pasado se instaló en Igartza y nos parece adecuado que también se amplie al barrio de Ezkiaga. Se han cumplido los compromisos adquiridos. A nosotros nos toca gestionar el presupuesto de la mejor manera posible de cara a la ciudadanía y lo intentamos.”</td></tr>
<tr><td colspan="2">Eva Alvarez Atanez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros pensamos que aunque la ejecución de las obras puede importar un millón de euros, quizás podría revisarse el proyecto para que esa cantidad fuera inferior. Aún así creemos que a la problemática existente hay que darle solución de una u otra manera. En su día cuando se plantearon los ascensores de la Portería se dijo que eran obras que no se podían realizar, pero más adelante se hicieron según se nos ha informado, son los más utilizados. En el que ahora proponemos, incide a pocos vecinos, pero como Ayuntamiento tenemos que dar una solución y no podemos poner como excusa la dificultad que tienen para poner ellos ascensores en sus comunidades. Eso les corresponde a ellos. En estos momentos hay vecinos que no pueden moverse de sus viviendas por el problema de accesibilidad existente. No puede quedarse en que se ha cumplido el compromiso por haber realizado el proyecto. Queremos que se le dé una vuelta y se analice. Lo del parque de Ixabel Olano, si bien sólo ha sido un ciudadano el que lo ha propuesto, hay que tener en cuenta que nosotros lo proponemos como grupo municipal y nosotros estamos en representación de los vecinos que nos votaron.”</td></tr>
<tr><td>Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Proiektua egin duen teknikoaren iritziz, irisgarritasun arazoa kopontzako igogailu inklinatua izan behar du eta geltoki ezberdinak izango dituen alboko karga dituena. Hortik dator hain garestia izatea. Esaten duzue aztertzeko, baina aditua den teknikoak ez badaki?. Ekartzen badiguzue beste proposamen bat, aztertuko daitekeena gustuz aztertuko dugu. Beasaindar guztien diruak kudeatzen ari garenez, lehentasunak jarri behar ditugu. Aipatu ere ez da egin, baina gauzatzeko lehendabizi Murumendi ikastetxeko terrenoak desjabetu egin beharko lirateke. Guretzat ez da lehentasunezko interbentzioa.”</td><td>Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “El técnico autor del proyecto considera que para solucionar el problema de accesibilidad el ascensor debe ser inclinado y con cargas laterales con diferentes paradas. De ahí que sea tan caro. Decís que se estudie, pero ¿Si el técnico experto no lo sabe?. Si nos traéis otra propuesta para su estudio, la estudiaremos gustosamente. Como estamos gestionando los dineros de todos los beasaindarras, tenemos que priorizar. No se ha mencionado, pero para materializarlo primero habría que expropiar los terrenos del colegio Murumendi. Para nosotros no es una intervención prioritaria.”</td></tr>
<tr><td colspan="2">Eva Alvarez Atanez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Tenemos escrúpulos para gastar esa cantidad pero por ejemplo, como consecuencia de la aprobación del convenio con URA y CAF, se han puesto un millón de euros y en un principio era un proyecto que lo iba a financiar URA, pero este Ayuntamiento para solucionar el problema de inundabilidad ha adelantado ese dinero, cuando era un proyecto que tarde o temprano iba a ejecutarse por URA.”</td></tr>
<tr><td>Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zuk eman duzu erantzuna. Udalak hitzarmen bidez milioi hori adostu du, baina uholdegarritasun hori ekiditeko egingo diren obren ondorioz, beasaindar orok izango dute onura. Hori da azkenean, orekan eta</td><td>La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV):” La respuesta las has dado tu. El Ayuntamiento ha acordado por convenio ese millón, pero como consecuencia de las obras que se llevarán a cabo para evitar esa inundabilidad, se beneficiará todo</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| balantzan jarri behar dena. Inork ez die ukatu nahi bertan bizi direnei, kontuan hartuta dituzten irisgarritasunak, etxebizitza. Horretarako ere alokairurako dirulaguntzak, kolektibo hori ere hartzen dute. Denari ezin zaio erantzuna eman. Lehen esan duzuna, orain ezezkoa dena, beste behar batzuk betetzen direnean etorriko da unea horretarako ere, baina momentuan beste behar izan batzuk ditugu.” | beasaindarra. Eso es al final, lo que hay que poner en equilibrio y en la balanza. Nadie quiere negar a sus moradores, teniendo en cuenta la accesibilidad que tienen, la vivienda. Para ello, las ayudas al alquiler también incluyen a este colectivo. No se puede dar respuesta a todo. Lo que has dicho antes, lo que ahora es no, llegará cuando se cubran otras necesidades pero en este momento tenemos otras necesidades.” |
| Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) jaunak: “Hasiko naiz Adur-ek erabili duen simil batekin: milioi batekin zenbat igogailu egin. Gu hemen jarduteagatik jasotzen dugun diruarekin zenbat giza betebehar asetuko lirateke?. 400.000 eurotik gora kostatzen da gu ordezkariak izatea. Gure soldata, dietak, gastu politikoa..., diru horrekin simil berdina erabiliz, euskaltegia, musika eskola, gazteria, ingurugiroa eta merkataritza elkartuta baino gehiago da. Ariketa ondo dago eta baliagarria iruditu zait indartzeko gure urteroko salaketa. 1.800.000,00 € gehiagoko aurrekontua planteatzen da, batez ere FOFINaren gehikuntzan oinarrituta. Hemen esan da errekor-a lortu dela ongizateko kontusailetan, eta horrela da, baina 1.800.000,00 € horietatik 1.500.000,00 kiroldegira, zerbitzuetara, hirigintzara eta Igartzaren biziberritzea bideratuta dago. Atentzioa deitzen digu egon den igoera hori zertara bideratu den. 87.000 € gehiago bideratu dira ongizate sailera gutxi gorabehera. Iruditzen zaigu bizi dugun egoeran, beharrak beste toki batzuetan ere oso inportanteak direla eta bideratu diren gehikuntza hauek bulnerableak diren beasaindarren beharrak asetzeko bideratu zitekeela. Aurrekontua iazkoa baino handiagoa baina azkeneko batzordean ere aipatu zen bezala, kontuan izan behar dugu iazko 16 milioi eta pikoko aurrekontua zertan geratu den. Gerakinetik 6 milioi euro baino gehiago beste behar batzuk betetzera bideratu dira. Guk kudeatzeko modu hori zalantzan jartzen dugu. Koltxoi horrekin kudeatzea ez da zaila baina iruditzen zaigu enpresa baten kudeaketa eredua dela udal batena baino. Eduki aldetik esan, udal gobernuarekin elkarrizketa batzuk mantendu ditugula, jarrera positiboarekin baina emaitzak gazi-gozo moduan baloratzen ditugu. | Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “Voy a comenzar con un símil utilizado por Adur: cuántos ascensores instalar con un millón. ¿Cuántas necesidades humanas serían satisfechas con el dinero que recibimos por asistir nosotros aquí?. Cuesta más de 400.000 euros que nosotros seamos los representantes. Nuestro sueldo, dietas, gasto político..., utilizando el mismo simil ese dinero, es más que el presupusto del euskaltegi, la musika eskola, juventud, medio ambiente y el comercio juntos. El ejercicio está bien y me ha parecido útil para reforzar nuestra denuncia anual. Se plantea un presupuesto de 1.800.000,00 € más, basado principalmente en el incremento del FOFIN. Aquí se dice que se ha conseguido un récord en las partidas de bienestar, y así es, pero de esos 1.800.000,00 €, 1.500.000,00 están destinados al polideportivo, servicios, urbanismo y regeneración de Igartza. Nos llama la atención a qué se ha destinado ese incremento que ha habido. Se destinan aproximadamente 87.000 € más al área de bienestar. Nos parece que en la situación en la que nos encontramos, las necesidades también son muy importantes en otros lugares y que estos incrementos se podrían haber destinado a cubrir las necesidades de los beasaindarras que son mas vulnerables. El presupuesto es superior al del año pasado, pero tal y como se mencionó en la última comisión, debemos tener en cuenta en qué ha quedado el presupuesto de 16 millones y pico del año pasado. Más de 6 millones de euros del remanente se han destinado a cubrir otras necesidades. Nosotros cuestionamos esa forma de gestionar. Gestionar con ese colchón no es difícil pero nos parece que es más un modelo de gestión de una empresa que de un ayuntamiento. En cuanto al contenido, decir que hemos mantenido algunas conversaciones con el gobierno municipal, con una actitud positiva pero valoramos los resultados como agridulces. |

| | |
|---|---|
| Esango ditut aurrekonturako proposatutako proiektuak eta onartu direnak zeintzuk izan diren. Hori baino lehen esan, garrantzia ematen diogula aurreko urteko aurrekontuetako hainbat kontzeptu mantendu egiten direla, hain zuzen ere, mugikortasun mahaitik aterako ondorioak gauzatzeko kontusaila, kultur sorkuntzarako dirulaguntzak eta C1 arte euskara ikasteko doakotasuna izateko laguntzak.<br><br>Proposamen berrietan eta aurrekontuan txertatu direnetan hauek: auzo-taxi zerbitzua, basogintza eredua aldatzea eta ekoizleei laguntza ematea helburu izanda, guk planteatzen genuen landa lurra erostea baina adostu duguna da proiektu bat egitea jakiteko zenbat azalera beharko litzatekeen, non etab., BIZIOLArentzat dirulaguntza, alokairurako dirulaguntzak.<br><br>Horrezaz gain guk apustu indartsua egiten dugu herrian alokairu sozialeko etxebizitzak egiteko orube bat eskuratzea. Bileretan erreferentzia modura 850.000 €ko kontusaila proposatu genuen. Jakin badakigu horrelako kantitate potoloak beste batzuek kentzea eskatzen dutela baina beno, nolabaiteko konpromisoa adierazi da gai honen inguruan eta gainean egongo gara. Beste gaia, gaztedi sailarena da. Iaz diagnostiko bat egin zen baina galdera da, orain zer?. Diagnostiko hori aztertu eta kudeatzeko, Beasaingo udalean pertsona bat behar da. Are gehiago orain, gazteri teknikariaren plaza hutsik geratu delako. Ikusi dugu udal gobernuak zer planteatzen duen. Gure ustez Beasaingo nerabe eta gazteek udal sail potente bat behar dute. Ha da gai bat urtero ateratzen dena eta urtero pauso txiki batzuk ematen dira, baina ez guk nahiko genituzkeenak. Hirugarren gaia, kiroldegia eta etxez etxeko laguntza eta eguneko zentroaren kudeaketa kontratua, 2022an amaitzen da nabaria da herrian zein giro dagoen eta zein gabezia dauden. Hainbat aldiz salatu dugun Udalak zerbitzuak azpikontratatzeko erabiltzen duen metodologiarekiko azterketa bat egin beharko litzatekeela eta beste eredu bat erabilita jakin zerbitzu horiek duintasunez eskaintzea posible den. Lanketa bat egitea planteatu genuen eta noski, lanketa horretan udal teknikariek ere parte hartuko lukete. Lanketa serio bat behar da, publifikazioaren inguruan egon daitezken mamuak uxatzeko edo jakiteko publikoa egitea zilegi den. Gai hau ez da aintzakotzat hartu. | Diré cuáles han sido los proyectos propuestos para el presupuesto y los aprobados. Antes decir que le damos importancia a que en los presupuestos se mantengan algunos conceotos del año anterior , como son la partida para la ejecución de las conclusiones extraídas de la mesa de movilidad, las subvenciones a la creación cultural y las ayudas para la gratuidad en el aprendizaje del euskera hasta el C1.<br><br>En las nuevas propuestas y en las que se han incluido en los prosupuestos: servicio de taxis vecinal, cambio de modelo forestal y apoyo a los productores, nosotros planteábamos la compra de suelo rural, pero lo que hemos acordado es que para saber cuánta superficie se necesitaría hacer un proyecto, dónde, etc., subvención a BIZIOLA, ayudas al alquiler.<br><br>Además, nosotros apostamos muy fuerte por la adquisición de un solar para viviendas de alquiler social en el municipio. En las reuniones se propuso como referencia una partida de 850.000 €. Somos conscientes de que este tipo de cantidades tan gordas suponen que se eliminen otras, pero bueno, se ha adoptado un cierto compromiso en este tema y vamos a estar encima. El otro tema es el del departamento de juventud. El año pasado se hizo un diagnóstico pero la pregunta es, ¿ahora qué?. Para analizar y gestionar este diagnóstico hace falta una persona en el ayuntamiento de Beasain. Más ahora que la plaza de técnico de juventud ha quedado vacante. Ya hemos visto lo que plantea el gobierno municipal. Creemos que los adolescentes y jóvenes de Beasain necesitan un departamento municipal potente. Este es un tema que sale cada año y cada año se dan unos pequeños pasos, pero no los que a nosotros nos gustaría. El tercer tema, el polideportivo y el contrato de ayuda a domicilio y gestión del centro de día, finaliza en 2022. Están a la vista el ambiente que  hay en el pueblo y las carencias que existen. En varias ocasiones hemos denunciado la necesidad de realizar un estudio sobre la metodología que utiliza el Ayuntamiento para subcontratar los servicios y saber si es posible ofrecerlos con dignidad con otro modelo. Planteamos hacer una elaboración y claro, en esa elaboración participarían también los técnicos municipales. Hace falta un trabajo serio para ahuyentar los fantasmas que pueda haber en torno a la publificación o saber si es lícito publificarlo. No se ha tenido en cuenta este tema. |

| | |
|---|---|
| Guk iazko jarrera berdina mantenduko dugu eta horren ondorioz, abstenitu egingo gara.” | Nosotros mantendremos la misma posición que el año pasado y nos abstendremos.” |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): “Gastu politikoa hainbat sailetako partidekin saiatu zara konparatzen. Ez duzuna konparatu izan da, sail horietako pertsonal kostua zenbatekoa den. Sail horietako teknikariak ere I kapituluan badaukate bere eragina. Aurrekontuaren igoketari buruz esan, kontuan hartu behar da iazko aurrekontua zein egoeratan egin zen. Iazko aurrekontuan helburua izan zen partidak irekitzea borondatea azaltzeko eta gero partida horiek behar zuten diru kopurua kreditu aldaketa bidez bermatzea. Orain FOFINak eraginda eta aurrekontu sarrera batzuk kontuan hartuta, ahalbidetzen da partida horien zenbatekoa errealitatera gehiago hurbiltzea. Ez dira 6 milioi erremanentetik erabili. Erabili dira 6 milioi kreditu aldaketetarako. Asko aurreko urteetako partidak dira, gaikuntza edo txertaketa bidez aurreikusi direnak. Horrek ez du esan nahi 6 milioi horiek gerakinetik gastatuko direnik. Hori aurrekontuaren likidazioa egiten denean ikusiko da, gutxi gorabehera 2022ko martxoaren bukaeran.<br><br>Zein kontzeptu mantendu diren esan dituzu. Esan duzu baita ere orain arte ez dela etxebizitza-politikarik egon, baina ez dezagun ahaztu, Mariarats eta Senperen alokairu sozialeko etxebizitzak eraiki izan dira Udala eta Eusko Jaurlaritza elkarlanean izanda. Lanean daukagun Egitasmo Orokorrak ere hainbat garapen aurreikusten ditu eta kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak apustu egiten duela alokairu etxebizitzekiko, aukera izango dugu elkarlanean horrelakoak gauzatzeko. Etxebizitzarena luzerako doanez, hurrengo urtean ere ez dugu gauzatzeko aukerarik izango. Horregatik kopurua garrantzitsuak jartzearen aldeko ez gara, baina filosofiarekin bat egiten dugu eta lanketarako borondatea azaltzen dugu. Gaztedian diagnostikoa egin da eta orain zer?. Gazteri-teknikariaren plaza hutsik geratu da eta beste jubilazio baten ondorioz, herritar saila berrantolatzeko aukera dugu. Orduan teknikari horren eskutik, diagnostiko horri eutsi eta datozen urteetarako ekintzak ahalbideratuko dira. Azpiegiturak behar diren edo ez esan, diagnostiko horren irakurketa azkar batean ez zegoela azpiegiturekin lotura zuzenik. Dena dela landuko da eta burutuko dira egin beharreko | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “Has intentado comparar el gasto político con partidas de diferentes departamentos. Lo que no has comparado es el coste de personal de esos departamentos. Los técnicos de estos departamentos también tienen su influencia en el capítulo I. En cuanto al incremento presupuestario, hay que tener en cuenta en que condiciones se elaboró el presupuesto del año pasado. En el presupuesto del año pasado el objetivo fue abrir las partidas para mostrar la voluntad y luego garantizar mediante modificaciones de crédito la cantidad de dinero que necesitaban esas partidas. Ahora debido al FOFIN y teniendo en cuenta algunos ingresos presupuestarios, se permite acercar más el importe de estas partidas a la realidad. No se han utilizado 6 millones del remanente. Se han utilizado 6 millones para modificaciones de crédito. Muchas son partidas de años anteriores que se han previsto por habilitación o incremento. Eso no significa que esos 6 millones se vayan a gastar del remanente. Esto se verá cuando se realice la liquidación del presupuesto, aproximadamente a finales de marzo de 2022.<br><br>Has dicho qué conceptos se han mantenido. También has dicho que hasta ahora no ha habido políticas de vivienda, pero no olvidemos que las viviendas de alquiler social de Mariarats y Senpere se han construido con la colaboración del Ayuntamiento y el Gobierno Vasco. El Plan General en el que estamos trabajando también contempla diferentes desarrollos y teniendo en cuenta que el Gobierno Vasco apuesta por las viviendas de alquiler, tendremos la oportunidad de colaborar para llevarlas a cabo. Como lo de la vivienda va para largo, el próximo año tampoco tendremos posibilidad de llevarlo a cabo. Por eso no somos partidarios de poner cifras importantes, pero compartimos la filosofía y expresamos nuestra voluntad de trabajar. En Gazteria se ha hecho un diagnóstico y ahora ¿qué?. La plaza de técnico de juventud ha quedado vacante y debido a otra jubilación tenemos la posibilidad de reorganizar el departamento de ciudadanía. Entonces, de la mano de este técnico, se mantendrá este diagnóstico y se posibilitarán acciones para los próximos años. Decir si se necesitan o no infraestructuras, que en una lectura rápida de |

| | |
|---|---|
| ekintzak. Publifikazioaren inguruan azterketa bat egitea eskatu zen eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren lizitazioa aurten tokatzen zaigu martxan jartzea eta orain arte egin izan den bezala lizitazio berriari begira, sindikatu eta hainbat eragileekin ere bilduko gara. Etxez etxeko laguntzaren kasuan, hitzarmen batean alde ari dira borrokan, baina hitzarmenaz haratago eredua aztertzea tokatzen da. Bilerak ea jarriak ditugu eragile ezberdinekin lizitazio berria lantzeko." | ese diagnóstico no había una conexión directa con las infraestructuras. En todo caso se trabajará y se llevarán a cabo las acciones a realizar. Se solicitó un estudio sobre la publificación y este año nos toca poner en marcha la licitación del servicio de ayuda a domicilio y como se ha venido haciendo hasta ahora de cara a la nueva licitación, también nos reuniremos con sindicatos y diferentes agentes. En el caso de la ayuda a domicilio están luchando a favor en un convenio, pero más allá del convenio toca analizar el modelo. Hemos acordado reuniones con diferentes agentes para trabajar en la nueva licitación. |
| Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:<br><br>Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)<br>Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Abstentzioak: 5 (Beasaingo EHBildu)<br><br>Horren ondorioz, gehiengo osoarekin proposamena onartu da, | Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:<br><br>Votos a favor: 9 (EAJ-PNV)<br>Votos en contra: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Abstenciones: 5 (Beasaingo EHBildu)<br><br>En consecuencia se ha aprobado la propuesta con la mayoría absoluta. |

**GASTUEN EGOERA**

| | | |
|---|---|---|
| I. KAPITULUA | Pertsonalaren ordainketak | 5.627.238,38 |
| | | |
| | | |
| II. KAPITULUA | Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak | 7.243.356,29 |
| | | |
| | | |
| III. KAPITULUA | Interesak | 11.275,00 € |
| | | |
| | | |
| IV. KAPITULUA | Transferentzia arruntak | 2.804.139,82 |
| | | |
| | | |
| V. KAPITULUA | Kreditu globala eta bestelako ustekabeak | 0,00 € |
| | | |
| | | |
| | **Eragiketa Arrunten Guztizkoa** | **15.686.009,49** |
| | | |
| | | |
| VI. KAPITULUA | Inbertsio errealaka | 2.501.328,00 |

| | | |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| VII. KAPITULUA | Kapital Transferentziak | 110.000,00 € |
| | | |
| | | |
| VIII. KAPITULUA | Finantza aktiboen aldaketak | 77.000,00 € |
| | | |
| | | |
| IX. KAPITULUA | Finantza pasiboen aldaketak | 0,00 € |
| | | |
| | | |
| | **Kapital-eragiten Guztizkoa** | **2.688.328,00 €** |
| | | |
| | | |
| | **AURREKONTU GASTUAK GUZTIRA** | **18.374.337,49 €** |

## SARREREN EGOERA

| | |
|---|---|
| Zuzeneko zergak | 3,978,300.00 |
| | |
| | |
| Zeharkako zergak | 250,000.00 |
| | |
| | |
| Tasak eta beste sarrera batzuk | 2,505,590.00 |
| | |
| | |
| Transferentzia arruntak | 10,882,197.49 |
| | |
| | |
| Ondare-sarrerak | 38,800.00 € |
| | |
| | |
| **Eragiketa Arrunten Guztizkoa** | **17,654,887.49** |
| | |
| Inbertsio errealen besterentzeak | 0.00 € |
| | |
| | |
| Kapital transferentziak | 711,500.00 |
| | |
| | |
| Finantza aktiboak | 7,950.00 € |
| | |
| | |
| Finantza pasiboak | 0.00 € |
| | |
| | |
| | |

| | |
|---|---|
| **Kapital-eragiketen Guztizkoa** | **719,450.00** |
| | |
| | |
| | |
| ***AURREKONTUKO SARRERAK GUZTIRA*** | **18.374.337,49** |
| | |

| | |
|---|---|
| f.- <u>2022RAKO PERTSONALAREN PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA</u>. 2021PEBO0097<br><br>Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da: | f.- <u>PLANTILLA DE PERSONAL Y RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PARA 2022.</u><br><br>Se ha informado la propuesta de la Comisión de Organización: |
| "*Gaia: Beasaingo Udalaren Plantila eta Lanpostuen zerrenda 2022. urterako.*<br><br>*AURREKARIAK*<br><br>*LEHENA.- Toki-erakundeen antolakuntza eta Jarduera araudiko 172) artikuluan ezarritakoaren arabera eta 2020ko azaroaren 4ko Alkatetzaren Probidentziak dioena betez, Antolakuntza eta Giza Baliabidetako Teknikariak ondorengo aurrekarietan oinarrituz beharrezkoak izango diren puntuen inguruko txostena egiten du.*<br><br>*2022. ekitaldirako Beasaingo Udalaren Plantila eta Lanpostuen zerrendan, ondorengo txostenean aipatzen diren hainbat alderdi dira aipagarriak:*<br><br>*1.HUTSIK DAUDEN PLAZAK: Gaur egun pertsonaleko plantila desberdinetan hutsik dauden plazak edo aldaketak ondorengoak dira:*<br><br>*ANTOLAKUNTZA ARLOA*<br><br>*<u>IDAZKARITZA AZPISAILA</u>* | *"Asunto: Plantilla y Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Beasain para el año 2022.*<br><br>*ANTECEDENTES*<br><br>*PRIMERO.- En cumplimiento de lo preceptuado en el artículo 172 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales y providencia del Sr. Alcalde de fecha 4 noviembre del 2020 el Técnico de Organización y RRHH emite informe sobre los extremos que se precisarán en base a los siguientes antecedentes:*<br><br>*De cara al ejercicio de 2022, en las Plantillas de Personal y RPT del Ayuntamiento de Beasain, se observan las siguientes variaciones:*<br><br>*1.VACANTES: En la actualidad las vacantes existentes en la Plantilla de Personal, son las siguientes:*<br><br>*ÁREA ORGANIZACIÓN*<br><br>*<u>SUBÁREA SECRETARÍA</u>* |

| | |
|---|---|
| *<u>Idazkari plaza 1</u>. Gaikuntza Nazionaleko Eskalako funtzionarioa, bitarteko funtzionarioak behin-behinean okupatua, erregelamenduz aurreikusitako hornidura-moduren baten bidez bete arte.*<br><br>*<u>EKONOMIA AZPISAILA</u>*<br><br>*<u>Kontuhartzaile plaza bat</u>. Gaikuntza Nazionaleko Eskalako funtzionarioa, bitarteko funtzionarioak behin-behinean okupatua, erregelamenduz aurreikusitako hornidura-moduren baten bidez bete arte.*<br><br>*<u>Diruzain plaza bat</u>, 2018-03-01etik aurrerako ondorioekin, Foru Aldundiak C1 taldeko langile bat izendatzen du Diruzaintzako lanpostua aldi baterako betetzeko, erregelamenduz aurreikusitako lehentasunezko hornikuntza-moduren baten bidez bete arte.*<br><br>*<u>Arlo Ekonomikoko/profil juridikoko teknikari plaza bat.</u> 2018ko lan-eskaintza publikoan sartuta. Oposizio-lehiaketa. 2021eko maiatzaren 27ko Ebazpenean lanpostua betetzeko lehiaketa-oposizio deialdia hutsik uzten da, behin ikusita prozesua bukatuta ez dagoela eskuragarri hautagaiak. Berriro ere prozesua ireki beharko da.*<br><br>*Gaur egun bitarteko funtzionarioak behin-behinean okupatua, erregelamenduz aurreikusitako hornidura-moduren baten bidez bete arte.*<br><br>*<u>Diru-bilketako administrari plaza bat</u>. 2018ko lan-eskaintza publikoan sartuta. Oposizio-lehiaketa. Hornitzen denean, administrari-plaza bat iraungituko da.* | *<u>1 plaza de secretario/a</u>. funcionario/a perteneciente a la Escala de Habilitación Nacional ocupada provisionalmente por funcionario interino hasta su cobertura mediante alguna de las formas de provisión reglamentariamente previstas.*<br><br>*<u>SUBÁREA ECONOMIA</u>*<br><br>*<u>1 plaza de Interventor/a.</u> Funcionario/a perteneciente a la Escala de Habilitación Nacional ocupada provisionalmente por funcionario interino hasta su cobertura mediante alguna de las formas de provisión reglamentariamente previstas.*<br><br>*<u>1 plaza de Tesorero</u>, con efectos de 1-3-2018 se nombra por Diputación Foral a una empleada del Grupo C1 para el desempeño con carácter accidental del puesto de Tesorería, hasta su cobertura mediante alguna de las formas de provisión preferentes reglamentariamente previstas.*<br><br>*<u>1 plaza de Técnico del Área económica/Perfil jurídico</u>. Incluida en la OPE 2018. Concurso-Oposición. En Resolución de Alcaldía de 27 de mayo del 2021 se declara desierta la convocatoria del Concurso Oposición al no haber candidatos disponibles una vez finalizado el proceso. Deberá volverse a convocar el proceso de selección.*<br><br>*En la actualidad ocupada provisionalmente por funcionario interino hasta su cobertura mediante alguna de las formas de provisión reglamentariamente previstas.*<br><br>*<u>1 plaza de Administrativo de Recaudación</u>. Incluida en la OPE 2018. Concurso-Oposición.*<br><br>*Proceso a iniciar en breve. Cuando se provea se extinguirá una plaza de Administrativo.* |

| | |
|---|---|
| *Administrari plaza bat. Titularraren erretiroagatiko lanpostu hutsa, gaur egun behin-behineko diruzainaren eginkizunak betetzen dituen administrariak beteko duena, diruzaintzako lanpostua betetzen denean.*<br><br>*ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEEN AZPISAILA*<br><br>*Antolaketa eta Giza Baliabideetako teknikari plaza bat. 2018ko lan-eskaintza publikoan sartuta. Barne Lehiaketa Berezia. Gaur egun, zerbitzu-eginkizunetan dihardu. Lehiaketa prozesua bukatuta 2020ko azaroaren 26ko ebazpenaren bidez postua esleitzen da. Lanpostu hori beteta, antolaketa-teknikariaren lanpostua iraungi egiten da.*<br><br>*Langileen eta nominatarako administrari plaza bat. 2018ko lan-eskaintza publikoan sartuta. Barne-sustapena. Gaur egun, zerbitzu-eginkizunetan dihardu. Lanpostua betetzean, administrari lanpostua iraungi egingo da.*<br><br>*Informatika Teknikaria. Bitarteko funtzionarioak behin-behinean okupatua, erregelamenduz aurreikusitako hornidura-moduren baten bidez bete arte.*<br><br>*LURRALDEA ARLOA*<br><br>*HIRIGINTZA ETA ZERBITZU AZPISAILA*<br><br>*Lurralde-arloko koordinatzaile bat. Horniketa baldintzatuta dago Aparejadore plazaren titularrak 2021eko abenduaren 31ko data aurreikusita dagoen erretiroarekin. Erretiroa hartzean, plantillako aparejadore plaza azkenduko da, eta aparejadore postua, berriz, lanpostuen zerrendatik. Ondoren, behin betiko horniketa prozesua irekiko da Lehiaketa prozesuaren bidez.*<br><br>*Gaur egun, zerbitzu eginkizunetan Beteta dago.* | *1 Plaza de Administrativo. Vacante por jubilación del titular que será cubierta por la Administrativo que actualmente desempeña funciones de Tesorera accidental cuando el puesto de Tesorería sea provisto.*<br><br>*SUBÁREA ORGANIZACIÓN Y RECURSOS HUMANOS*<br><br>*1 plaza de Técnico de Organización y Recursos Humanos. Incluida en la OPE 2018. Concurso Específico Interno. Finalizado el proceso de concurso, por resolución de Alcaldía de 26 de noviembre del 2020 se adjudica el puesto. Con su provisión se ha extinguido la plaza de técnico de Organización.*<br><br>*1 plaza Administrativo de Personal y nóminas. Incluida en la OPE 2018. Promoción Interna. Actualmente ocupada en Comisión de Servicios. Con su provisión se extinguirá la plaza de Administrativo.*<br><br>*1 plaza de Técnico Informático. Ocupada provisionalmente por funcionario interino hasta su cobertura mediante alguna de las formas de provisión reglamentariamente previstas.*<br><br>*AREA TERRITORIO*<br><br>*SUBÁREA URBANISMO Y SERVICIOS*<br><br>*1 coordinador Área de Territorio. Su provisión está condicionada a la Jubilación del titular de la Plaza de aparejador prevista el 31 de diciembre del 2021. A la Jubilación se producirá la extinción de la plaza de Aparejador de la plantilla y la extinción del Puesto de Aparejador la Relación de Puestos y abrirá el proceso de provisión definitiva por el procedimiento de Concurso.*<br><br>*Actualmente ocupado en comisión de servicios.* |

| | |
|---|---|
